

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

2020-04-30 OSTEGUNA / 727. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

**LANGILEEN ALDARRIKAPENAK  
INTERNET BIDEZ ETA  
MAIATZAK IGO GABE**



**B I**

**Z I T Z A**



## GERTUKO MERKATARITZAREN ALDE

Koronabirusaren ondorioak hainbat modutan jo ditu merkataritza eta zerbitzuak. Arlo horretako sei profesionalekin egokitzeko egin behar izan dituztenaz eta etorkizunaz hizketatu ginen Gobernuak konfinamendua biguntzeko neurriak hartu baino lehen

**Maidar Betelu Ganboa / Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Lehengaiak. Diseinua. Ekoizpena eta fabrikazioa. Banaketa. Kontsumoa (erabili, berrerabili, konpondu). Bilketa. Birziklatzea. Eta berriro hastera: Lehengaiak. Diseinua. Ekoizpena... Hori da zirkulu-ekonomia, labur azaldu ta. Ekonomia kate horretan katebegi ahulenetako bat tokiko merkataritza da, herrietako denda txikiak. COVID-19 garai berezi hauetan ezinbestekoak bihurtu zaizkigunak. Eta berriro protagonista bihurtu direnak.

Hiriburuen erakarpen efektuak herrietatik makina bat jende hara bizitzera joatea eragin zuen. Hala hasi ziren herriak husten. Herrietako dendek garai hartan bezeroak galdu zituzten. Hiriburuen inguruan zabaldu ta merkataritza gune handiek herrietako bezeroak erakarri zituzten. Herrietako dendek su-

matu zuten. Eta azken hamar kadetan nabaritu dutena da Internet eta teknologia berrien bidezko erosketekin, merkataritza elektronikorekin. Horrekin ere bezeroak galdu dituzte. Ia konturatu gabe, bizkortasuna, merketasuna eta kontsumo masiboa saritzen zituen aro baten parte bihurtu zen kontsumitzailea, zer erosten ari ginen ere kontuan hartu gabe.

Tokiko merkataritzak gure bizitzetan eragin handia du. Hasteko, gure herriei bizia ematen die: dendak zabalik egonik jendea kalera ateratzen da, dendetan begiratu eta erostera. Haietan kontsumituz herriak biziberritzen laguntzen dugu. Gure herrietako dendetan inbertitzen den dirua herrian bertan mugitzen jarraitzen du, gure inguru hurbileko ekonomia oparotasunari ekarpena eginez. Izan ere, diru etekinak hurbileko pertso-

nen eta familien artean birbanatzen da.

COVID-19 gaitzak eragindako osasun larrialdiak tokiko merkataritzaren bizi-iraupena arriskuan jarri du. Denda batzuk hasi dira eraldaketa digitalerako pausoak ematen. Horren adibide da, esaterako, Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Zerbitzuen Elkartearen dauden 30 dendek telefono bidez erosketak egiteko eta erositakoa etxera bidaltzeko ekimena. Administrazioak ere ari dira tokikoa eta tokiko dendetan erosteko kanpainak egiten. Eta izpiritu hori bera du Guaixe Fundazioaren txartelak, ibarreko makina bat establezimendutan kontsumitzeagatik abantailak ematen dituenak.

Ekimenak ekimen, ibarreko sei arlotako profesionalengana jo dugu koronabirusak ekarri duen errealitatearen aurrean duten iritzia jakiteko.

## "Bezeroek bizia, indar fantastikoa ematen digute"

**ZURIÑE ORMAETXEA PADILLA**

ZURIÑE ILE-APAINDEGIA. Irurtzun

### Zer zerbitzu ematen ari zara orain?

Etxez etxeko zerbitzua eskaintzen ari gara: mugikortasun mugatua duten pertsonendako, ileordeen konponketak, tratamenduren bat dutenendako... Gauza gutxi batzuk besterik ezin ditugu egin. Jende gehiegik ere ez du hots egiten, premia berezia dutenak besterik ez. Publikoarendako ile-apaindegia itxita dago. Debe-katuta dago zabaltea. Gainera, majo kontrolatuta dute.

### Horretarako, egokitu behar izan duzu?

Nik beti eskaini dut zerbitzu hori. Ahal izan dudanean, eta ondoko herrietara joan ahal izan naizenean, premia duten pertsonendako beti prest egon naiz. Eskatzen dutenaren araberrako tresneriarekin eta lanabesekin maleta prestatzen dut. Nik uste dut eskualdeko ile-apaintzaile guztiak gaudela halako zerbitzua eskaintzeko prest. Pertsona horiekin

kontaktuan jarri aurretik eskuak garbitzen ditut, eta ateratzean berriro. Metro batera mantendu. Eskularruak, maskara, aurpegi babesgarria eta bata eramaten ditut. Baita desinfektatzailea ere. Mandarrak aldatu egiten ditut, eta gero 90 gradutan garbitzen ditut. Prestatuta goaz ile-apaintzaileak. Nahikoa kontzientziatuta gaude.

### Zein da jendearen erantzuna?

Jende berri gutxi sartu da. Koronabirusarekin kutsatzeko beldurrez, nik uste jendea hots egiteko beldur dela. Beste batzuk konfiantza dute.

### Buelta nolako izan beharko da?

Lanean lasai asko hasteko prestatuta gaudela uste dut. Metro bateko errespetua mantenduz, lanean hasteko aukera handia genuke. Eta egiten ari garena egiten segitzeko. Ile-apaintzaile guztiak bezala, bueltatzeko gogo handia dut. Gure jendearekin, gure bezeroekin egon beharra dugu. Bizia, indar fantastikoa



## "Oso harrera ona izan dugu"

**LEIRE GONZALEZ**

ML MODA ARROPA-DENDA. Altsasu

### Zer nolako zerbitzua ari zarete ematen?

Gure ohiko zerbitzua pixka bat eraldatu dugu. Sare sozialetan, Facebooken eta Instagramen, topera gabiltza. Egunero irudiak, bideoak eta zuzenekoak egin eta igotzen ditugu, dendako arropa

eta look proposamenekin. Berehala Amaren Eguna izanen da eta horretan gaude burubelarri. Eta, aparte, bezeroek gure WhatsAppera jotzen dute eskariekin: "bakero batzuk behar ditut..." eta guk argazkiak bidaltzen dizkiegu. **Teknologia berriek laguntzen dute?**



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Etxe pasiboetarako egokia

S 9000

Beirak lehorrean jarrita

STV

Isolamendu nukleo indartsua

IKD

Aparteko azala koloreztatua

dicrycolor

ematen digute. Bezeroak lagunak dira. Guztia behar bezala jartzeko gogoia dugu: ile-apaindegia, haiekin egon, behar duten zerbitzua emateko, baita ditugun gastuei aurre egiteko aukera izatea ere. Gauza asko pilatzen dira.

#### Egoitza egokitu beharko duzu?

Bai. Beharra dago. Horretarako prestatuta egon behar dugu. Ile-apaintzaileekin txateatu dut Interneten eta guztiak oso prestatuta gaude. Buruan sartuta dugu. Material guztia prest dugu. Kontzientziatuta baikaude. Hasteko gogotsu gaude. Lurreko marrak... Hitzorduak zehaztu egin beharko dira, jendeak bat ez egiteko, distantzia... Badakigu zer tokatzen zaigun. Gugatik. Eta bezeroengatik.

#### Zein irakasgai ateratu duzu aurrera begira?

Hainbeste ikasi dut! Familia zer den baloratzea; hainbeste ordu sartu beharrean haiekin behar den denbora egotea baloratzen ikasi dut. Bezeroak baloratzea. Eguneroko erritual hori, jendearekin harremana izatearena, hitz egitearena, elkarren biziaren berri izatea, harreman mantentzea... Bizitza izatea. Hainbeste gauza baloratzea... "Jo, begira, denbora gutxian etxe batean isolatuta gelditu gaitzake" esatea. 88 edo 90 urteko amonekin hitz egin dut eta haiek esaten didate: "gerrak bizi izan ditut, gudak, hainbeste gauza bizi izan ditut. Baina etxetik ateratu ezin hiru, sekula santan ez zait pasatu". Hainbeste ikasten duzu! Bezero bakoitzak asko ematen dizu. Falta sumatzen dut.



## "Ostalaritzan itzulera gogorra izango da, konplikatu"

JESUS PEREZ DE OBANOS

ARRUAZUKO OSTATUA. Arruazu

#### Zer nolako zerbitzua ematen ari zarete?

Aurretik Errozko Oskia Etxean aritu eta gero, azaroaren 1ean Arruazuko Ostatuaren kargua hartu genuen. Asteazken menuak ematen genituen eta asteburuetan eta udan afariak baita ere. Askotan lan egiten genuen eta oso gustura geunden. Kontuan izan behar da Arruazu herri txikia dela, ostaldea taberna-jatetxe bakarra dela eta herritarren bilgunea dela. Baina koronabirusarena gertatu zenetik negozioa itxi genuen eta horrela jarraitzen dugu, ez

dugu zerbitzurik ematen. Inork ez du ezer esaten eta nik uste dut egoera hau luzerako doala; zaila ikusten dut, eta itzulera gogorra izango da.

#### Zuen kasuan teknologia berriek ez dute laguntzen?

Ez, itxita gaudelako. Gure kasuan, gainera, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioa egin behar izan genuen, eta, hortaz, ezin dugu asteburuetan etxera emateko zerbitzua eskaini edo besterik egitera animatu. Horretarako Aldi Baterako Enplegu Erregulazioa jaso beharko genuke, eta nor arriskatu da halako egoe-

ra batean? Emaztea eta biok bakarrik bageunde, animatuko ginatke, baina...

#### Buelta nolako izanen dela uste duzu?

Zaila. Asesoreak ere esan digu, oso konplikatu izango dela. Faktore asko aztertu beharko ditugu, aurrera egin dezakegun ikusteko.

#### Uste duzu ostaldea egokitu beharko duzuela?

Ziurrenik inbertsioaren bat egin beharko da. Entzuten da, manparak jarri beharko direla, bantzeko eremuak... baina oraindik ez dakigu zer eskatuko ote duten. Bestalde, aforoa erdira jaisten bada eta langileak izanez gero, erdira lan egitea errentagarria izango da? Oso konplikatu da. Honekin guztiarekin garai bateko Tabakoaren Legea datorkit burura. Orduan taberna eta jatetxe askok sekulako inbertsioak egin zituzten erretzaileen eremuak egiteko, eta handik urte batera erretzea debekatu zuten. Eta administratiboki ez zen inolako laguntzarik egon egindako gastuetan laguntzeko. Izugarriko ziurgabetasun egoeran gaude. Nik eta emazteak, biok Arruazuko Ostaldea lan egiten dugu, gure etxean ez da beste dirurik sartzen, eta bi seme-alaba ditugu. Esperoan gaude, lehenik eta behin ea ostaldea noiz zabaldu ahal izango dugun eta zein baldintzatan jakiteko, eta gero egoerari aurre egin ahal diogun aztertzeke. Argi eta garbi. Eta pena handia ematen digu, oso gustura gaudelako Arruazun. Ostaldea herriko bil-

gunea da, eta herritarren artean familian bezala gaude.

#### Hortaz, herritarren erantzuna ona da?

Sekulakoa. Makina bat dei jaso ditugu herritarrengatik, nola gauden galdetu eta zerbait behar badugu euren burua eskaintzeko. Eta hau gertatu zenetik Udalak ez digu alokairua kobratzen. Hori sekulako detailea da. Gutaz kezkatzen dira: nola gauden, ea zerbaitetan lagundu dezaketen. Eta asko eskertzen da hori. Likidezia gehiago izateko, ea produkturen bat saltzen ote dugun galdetzeko deitu digute.

#### Egoera honetatik zein irakasgai ateratu duzue aurrera egiteko?

Ba tabernak eta jatetxeak uste baino askoz ere garrantzitsuagoak direla. Aurreko egunean mendian egon nintzen osabarekin azienda gobernatzeko eta jaisterakoan garagardo bat hartzeko tokirean bat faltan bota genuen. Izan ere, garagardo batek ez du zapora berdina tabernan edo etxean. Ez da berdina. Jendeak faltan botatzen ditu tabernak. Sare sozialetan erlazionatzen omen da jendea orain, baina tabernak, bilguneak faltan botatzen dira. Bestetik, Arruazuko jendearen portaera, txalotzekoa da. Etengabe gutaz kezkatzen, babestuta sentitzen gara. Urte asko daromatzaugu ostalaritzan eta aspaldiko bezeroak eta egungoak gutaz galdetzea, handia da. Orain seme-alabekin egoteko tarte handiagoa dugu, baina lanera bueltatu nahiko genuke.

Askotan koronabirusarena gertatu aurretik Instagram erabiltzeko ikastaro bat egin nuen eta oso ongi etorri zait, ongi erabilita abantaila asko dituelako. Oso eroso da. Dena den, guk aurretik ere teknologia berriak lantzen genituen gure eskaintza ezagutarazteko, baina ez orain bezainbeste. Koronabirusarena gertatuta, ezin ginen etxean lasai geratu, eta Cristinak eta biok sare sozialekin topera hasteko beharra argi ikusi genuen. Eguneroko gabilta jantzien argazkiak igotzen, bezeroei zerbitzua emateko. Gero, eskariak dohainik bidaltzen ditugu MRW zerbitzuekin, edozein tokitara, eta Altsasun guk egiten dugu banaketa. Dendari izateaz gain, community manager, modelo eta banatzaileak gara (kar, kar...). Hasie-

rako egunetan kristoren lotsa ematen zigun, baina jada lotsa galdu dugu.

#### Erantzuna zer nolako izaten ari da?

Oso ona, espero genuena baino askoz ere hobea. Jendeak eskertu egiten digu, pozik dago. "Zeinen ongi ari zareten, eskerririk asko! Orain bidali amerikar... " eta halakoak esaten dizkigute. Horrek pozten zaitu eta ez dago zalantzarik: aurrera! Oso gustura gaude, eskertuta. Eta bide batez burua lanpetuta duzu, ez zara krisi egoera horretan sartzen, eta gauzak berriak egiten zaude.

#### Buelta nolako izango dela uste duzue?

Ez digute oraindik ezer esan baina guk baditugu babesleak edo maskarak eskatuta, mostroarekin metakrilatozko pantaila

jarriko dugu, hidrogelak egongo dira... finean gure dendan jendea ongi sentitzea nahi dugu, euren segurtasuna bermatzea. Nik uste dut bueltan poztasuna nabaritzuko dugula, normaltasunerantz bueltatu hori. Oso baikorrak gaude, giro ona jarriko dugu dendan, jendea gustura sentitzeko, gauza dibertigarriekin.

#### Uste duzue denda egokitu beharko duzuela?



Denda handia da, aforoa ere, eta ikusiko dugu zein baldintza eskatzen dituzten, baina aipatutakoek gain, ez dut uste aparteko ezer eskatuko dutenik. Bezeroek arropa probatu ondoren pentsatzen dugu gero biltegira eramane beharko ditugula, produktu berezi batzuekin "garbitzeko", halako neurriak etor daitezke. Baina baikor gaude; eta aurrera, filosofia horrekin gaude.

#### Egoera honetatik zein irakasgai ateratu duzue?

Etengabe berritzen egon behar duzula eta burua irekita, gauza berriak ikasteko, eta jarrera oso baikorra izan behar duzula eta aurrera egin beharra dagoela, besterik ez. Bakoitzak ahal duen moduan ateratu behar du bere negozioa. Egoera normaltasunerantz bueltatzen denean ere, egongo da arropak etxera bidaltzeko zerbitzu hori nahi izango duenik, lan ordutegiengatik, edo etxean arropa probatzea nahiago duelako edo dena delakoarengatik, eta, zerbitzu horri eustea eta beste gauza batzuetan pentsatzen ari gara: baina gure bat sortzea, esaterako. Sare sozialekin orain bezala jarraitu behar dute martxan. Guztiari buelta bat emango diogu, eguneroko martxan arabera joango gara ikusten.

## "Niretako orain bezeroak nire indarra dira"

**ELENA ALDASORO GALAN**  
ARKATZ LIBURU-DENDA. Altsasu

**Zer zerbitzu ematen ari zara orain?** Liburu-denda Aste Santua eta gero ireki genuen. Aurretik borrodatez itxita izan genuen. Jendea bakarrik dendaren sarrerara sartzen da. Ate parean mahai bat jarri dut. Nik eskaintzen diet, erakusten diet nahi dutena. Baina nik bakarrik ukitzen ditut produktuak. Liburu-denda irekita izanen banu, desinfectatzen izanen nukeen lana izugarria litzateke. Ez dut handien baliabiderik. Ezin dut bezero guztiendako eskularrurik erosi, ezin dut gastu hori nire egin. Eta bakarrik nago.

**Horretarako, egokitu behar izan duzu?** Oraingoan ordutegi murriztutarakin ireki dugu: 10:00etatik 13:00etara. Lehen, komertzio guztia bezala goiz eta arratsalde egoten zen zabalik. Orain deialdia da kalean ahalik eta jende gutxiengoa eta ahalik eta jende gutxiengoa.

biltzea. Beraz, guk ere lana hiru ordu horietara murriztu dugu. Tsunami parekoa da, jende guztia momentu berean, baina oraingo horrela antolatu gara.

Jendeak guregana jotzeko beste baliabide batzuk jarri ditugu, esaterako: Facebook, Instagram, arkat@arkatzliburudenda.com e-posta, 636 614 810 whatsapp. Horik ere eskaerak jasotzen ditugu eta ondoren jendea bila etortzen da. Eskatzen digunari ere etxera bidaltzen diogu banatzaile baten bitartez: Sakanan, Gipuzkoan...

Lehen noizbait egin izan dugu, baina oso puntualki. Esaterako, lehenakuntzar batek idazten zidan halako liburua nuen galdezka, bidaia aprobetxatzeko. Orain jendeak eskaerak, galderak egiten ditu, bidaltzeko. Ez dugu plataforma bat gure stock guztiarekin, baina saiatsen naiz informazioa ematen. Orain sare sozialak gure



erakusleioa dira. Etxean gaude eta agian, kontu horretan, denda txikiok berri egin behar dugu. Orain argi gelditu zaigu.

Sare sozialek garrantzia daukate. Jende asko dago ohituta produktuak horrela ikustera. Ez bakarrik saltzea. Guk ere kultur dinamizazioa egiten dugu. Esaterako, pandemia honetan, Postuleo zozketa egin dugu. Irakurtzen agertzen zinen argazki bat igo behar zenuen sare sozialetara eta gu etiketatu. Ibon Martin idazlearekin Instagramen zuzeneko bat egin genuen. Liburuaren Eguna zela eta "hitzordu itsua" antolatu genuen: denda paperean bildutako hainbat liburu zeuden, eta paperean barruko liburuari buruzko argibide gutxi batzuk, jendeak haiek eskuratu zitzaizkeen. Pixka bat dinamizatu eta gauza

berriak eskaini. Denon artean, ahal den hobekien, hau pasatzeko. **Zein da jendearen erantzuna?**

Nik oso nekatuta bukatzen dut askotan. Baina, aldi berean, bezeroak eta lagunak indarra ematen dauzkat. Proposatzen dudak guztia oso arrakastatsua izaten da. Azkenean, horrek beste gauza batzuk antolatzeko motibatzen zaitu. "Hitzordu itsuko" liburuak gordetzeko eskatu zuen jendeak sare sozialen bitartez. Jendearen aldetik, kexurik ez. Denak oso arduratsua. Ez dute presarik: "ahal duzunean". Gero: "zeinen ondo, Elena. Eskerririk asko". Horrek laguntzen du egoera zail hau aurrea eramaten.


**Buelta nolako izan beharko da?** Erantzutea gustatuko litzaidake, baina inork ez dakigu nola izanen den buelta. Oraingo horrela gaude. Gero ikusiko dugu ordutegia

zabaltzen dugun. Ikastetxeak ere ez daude zabalik. Dena oso airean dago. Baina nire denda, denda guztietan edo zerbitzuetan, edonoren bizian, ez?

**Liburu-denda egokitu beharko duzu?** Bat-batean egokitzea oso kontu zaila da. Gainera, ekonomia inbertsioa ere behar du. Eta ez gaude garai hoberenetan. Jendea dendara sartu gabe, ez dakit noiz arte mantenduko dudana.

**Zein irakasgai atera duzu aurrera begira?**

Hausnarketa sakonagoa egin beharko nuke. Baina ikasi dugu benetan garrantzia duenari garrantzia ematen, eta ez duenari ez ematen. Niretako orain bezeroak nire indarra dira. Beraien animoak... Azkenean, pertsonen arteko erlazioa garrantzitsua dela agerian gelditu da. Hori da denok faltan duguna. Ez gauza materialak ez ezer, baizik eta familiarekin, lagunekin egotea. Momentuak bizi eta oroitzen gure bizitzan sortu. Eta beti berriro behar garela. Arazoen aurrean, buelta eman. Batzuetan kostatzen da. Egun okerragoak, edo hobeak. Ezer ez da finkoa. Dena mugitzen da eta moldatu behar gara. Hori ikasi dut.



## "Optikan aldaketa asko egin beharko ditugu"

**AINHOA ALVAREZ DIAZ DE ARKAIA**  
SAKANA OPTIKA. Altsasu

**Zer nolako zerbitzua ematen ari zara orain?**

Guk printzipioz irekita edukitzea badugu, baina EPI-ak ez ditugu eta orduan, momentuz, urgentziak tratatzen ditugu, norbaitek zer-bait behar badu. Hasiara batean optikako telefonoa etxeko mugikorrera desbideratu nuen eta bakarrik urgentziako eskariak atenditzera etortzen nintzen, baina orain hasi gara astean bizpahiru egunetan optika zabaltzen, eta orduan bezeroek erraztasun gehiago dute. Horretaz gain, email ez edo Whatsapp ez ere eskariak jasotzen ditut. Denda aldaketak egin ditugu, baina gehiago egin beharko ditugu, poliki-poliki. Arazo handiena da maskarillak lortzea kostatzen ari zaigula, manparak ere ez daude, eta betaurrekoak

desinfectatzeko ultravioletako makinaria batzuk behar dira, baina oraindik ez dira etorri. Eta iritsi bitartean, denda hustu dugu, kutsadurak ekiditeko, eta bezeroekin distantzia izateko neurriak hartu ditugu. Momentuz, ezin dugu graduatu, ezin ditugu begiak ikutu. Optikoek Kolegioak momentuz ez digu lan hori egiten uzten. Bezeroekin oso gertu lan egiten dugu, eta gaur egun ezin dugu gutxiengoko distantzia horietan lan egin, EPI-ak eta pantailak izan arte. Kristal bat hausten dela, aldatu, pilak, likidoak eta lentillen eskariak egiten ditugu, baina momentuz graduatu ez.

**Teknologia berriek lagundu dizute?** Bai. Berez teknologiei esker jendeak telefonoz, Whatsapp ez... galderak egiten dizkizu, ez duzu

horretarako etxetik mugitu behar. Askok laguntzen dute.

**Erantzuna zer nolako izaten ari da?** Ba nik uste dut jendea txintxo dagoela, gehienak etxean gelditzen dira eta bezero gehienek telefonoz hots egiten dute urgentzia behar badute. Esaterako, bezero asko sanitarioak dira eta lentillak behar izaten dituzte, maskarillarekin antequak enpañatzen zaizkielako, eta ni joaten naiz lentillak ematera. Erantzuna, berez, oso ona izaten ari da, eta jendea txintxo-txintxo portatzen ari da, tokatzen zaiguna.

**Buelta nolako izanen dela uste duzu?**

Ni nahiko baikorra naiz. EPI-ak lortzen ari dira, eta nik uste aurki hasiko garela graduatzen. Baikorra naiz, uste dut maiatza aldera hasiko garela graduatzen, jendearengana gerturatzen, EPI-eta maskarekin, jakina. Ez normaltasun osoarekin, baina poliki-poliki hasiko gara, umeak ere hasi dira ateratzen... Gogo askorekin nago, uste dut denok nahi dugula normaltasun batera joatea.

**Uste duzu denda egokitu beharko duzula?**

Bai, esan bezala manparak jarri behar ditugu, EPI-ak, pantailak eta aparatu berriak behar ditugu, lentillak, audifonoak eta betaurrekoak desinfectatzeko. Gauza asko aldatu behar dira, eta gauza asko ditut ere buruan, behar izan arren eskura ez daudenak. Eskaria handia izaten ari da. **Egoera honetatik zein irakasgai atera duzu?** Batez ere, pertsonen arteko kontaktua zenbat behar dugun. Ni kontaktuko pertsona bat naiz, bai besarkadak eta baita musuak behar ditudana. Ez zaio horrelako garrantzirik ematen, baina zeinen garrantzitsua den kontaktua hori. Orain 2 metrota ikusten gara, eta behar hori dago. Beste gauza batzuk ere, baina batez ere hori. Eta sortu den beldurra, kontaktuari beldurra. "Nik honi muxu bat ematen badiot gaixotuko naiz, nire familia gaixotuko da..." ea hori hobetu eta beldur hori kentzen dugun. Orain beste era batera lan egingo dugu, ikasiko dugu eta egokituko gara, ez dugu besterik.

## "Ikasleen egoera desberdinetara moldatzen joan gara"

**PATXI FLORES LAZKOZ**

AEK EUSKALTEGIA. Sakana

### AEKn euskara irakasten jarraitzen duzue?

Bai, lehendabiziko astean ez genekien zer egin, atzera edo aurrera... beranduxeago edo lehentxeago, azkenean denok ari gara lanean, etxetik. Aurrez-aurre ezin dugu lanik egin eta beste erremediorik ez dugu izan ikasleei telefonoz deika hasi, e-mailaz lanak bidali, Whatsapp bidez eta bideo-deiak egiteko dauden beste hamaika aplikazioen bidez: Jitsi, Meet, Zoom, Duo... kontu horiekin. Etxeko lanak Drive bidez, e-mailen bidez... bidaltzen ditugu. Batean bati, ordenagailurik ez duena edo teknologia-rekin moldatzen ez direnekin, modu batera edo bestera moldatu gara etxeko lanak paperez emateko. Denetarik dago eta egoera desberdinetara moldatzen joan gara. Nik ez daukat hau: ba paperez bidaliko dizut, edo audioz bidaliko dizut... Modu batez edo beste, lanean jarraitzen dugu. Gu ere, irakasleok, Aste Santuko oporrak kenduta, ia astero bilerak egin ditugu.

### Telelana bihurtu da zuen eguneroko ogia.

Bai, irakasleekin eta ikasleekin. Nik ia egunero deitzen diet ikasleei Whatsapparen bidez, talde txikitik, launaka. Hitz egiten dugu. Horretaz aparte, etxeko lanak bidali... Baina badago etxetik lan egiteko gauza den jendea, baina, berez, ikasle asko etortzen

zaizkigu euskara aurrez-aurre egiteko, eta bat-batean bihurtu ditugu autoikaskuntzako ikasle. Batzuek zaila egiten da eta, horregatik, saiatzen ari gara Whatsapp bidez eta telefono bidez aritzen, jendea animatzeko eta ez atzean gelditzeko, ez galtzeko, une hauetan oso erraza delako atzean geratzea: "Ez dut ezer jakin nahi, ez dakit egiten..." Eta atzean geratzen zara. Baina ahalgin handia egin dugu egoera guztietara egokitzeko eta ikasle gehienak erantzuten ari dira.

### Hortaz ikasleek ongi erantzun dute? Ongi hartu dute?

Denetatik dago, badago jendea ordenagailurik ez duena, edo soilik telefonoa duena... modu batera ez bada, beti aurkitzen diogu alternatibaren bat. "Utziko dizut euskaltegi atean poltsa bat, ahal duzunean pasa". Edo etxeko atean utzi ere. Salbuespen batzuk dira, baina gehien gehienak dinamika berrian sartzen dira. Gero, batzuk etxeko lanak txintxo egiten dituzte, beste batzuei kosta egiten zaie... Alternatiba? Jendearekin gutxienez hitz egin, telefonoz, Whatsappez... edo dena delakoaz. Edo lantxoak bidali eta taldean hitz egin eta ariketa motzagoak zuzendu... Finean erritmoa ez galtzeko eta jendea ez galtzeko, ez deskolgatzeko.

### Nola uste duzue izango dela buelta?

Inork ez daki garbi zer gertatuko den. Nafarroako batzordeak ere



egiten ditugu, tartean daude aurrematrikulak eta kanpainak, hurrengo ikasturteari begira-koak, baina une honetan ez dakigu ikasturte honetan klasera itzuliko ote garen ere. Azkeneko asteetan, igual, zerbait egin dezakegu... Gauza bat da kanpora atera ahal izatea eta beste kontu bat da gela batean 8-10 lagun biltzea. Lege kontua eta pertsona bakoitzaren izaera sartzen dira hor; beldurrak eta kontu horiek.

### Egoitza egokitzea tokatuko zaizue?

Ez dakigu, egunetik egunera gauzak aldatzen dira. 6-7 aste falta dira ikasturtea bukatzeko eta ez dakigu. Erne gaude edozein erabaki dela eta gauzak aski egiteko, ikasleak gustura gelditzeko eta heldu den urterako ere ikasleak izateko. Txukun bukatu behar dugu ikasturtea, uste dut txukun ari garela, baina bukaera txukuna eman beharko diogu. Orain dena da telefonoz, emailaz... zailagoa da, pentsatzea ere arra-

roa egiten da. Erne gaude, edozein aldaketa edo eskari dagoela... jendea euskaltegiara bueltatzeko edozein zirrikitu badago, aprobetxatuko dugu. Baina momentuz, esperoan.

### AEKn eskaintza osagarri diren barnetegiak ere, horren menpe, ez?

Bai. Hasiera batean ez genuen espero, gauza larritu ahala, udako barnetegiak zalantzan jartzen ziren, orain gauza pixka bat askatzen hasi denez, ez dakigu... gauza bat da kanpora atera ahal izatea eta beste bat bat 8-10 pertsona elkartu ahal izatea. Gobernuak ez dakite datorren asterako zer erabaki behar duten, ba, pentsa guk... Erne bai, pausu bat edo beste azkar emateko, baina momentuz ezin dugu esan ekainaren X egunean etorri euskaltegiara. Ezin dugu esan, ez dago modurik hori esateko.

### Honen guztiaren aurrean AEKn, irakasgairaren bat atera du aurrera begira?

Bai, nik uste dut irakasleok nolabaiteko gaitasuna badugula edozein egoerari aurre egiteko. Aurrez-aurreko klasean egon garenean, normalean gai izaten gara ariketa batek ez badu aurrera egiten, jendea trahatu denean, eskupetik beste ariketa bat ateratzeko. Horretarako gai izaten gara, ariketa alternatibo bat egiteko. Baina orain ariketa alternatibo bat baino zer edo zer gehiago tokatu zaigu. Eta nik uste dut nahiko txukun erantzuten ari garela. Ikusten dut gauza garestu alternatibak sortzeko. AEKn ere autoikaskuntzako taldea badugu, esperientzia genuen horrekin, eta laguntzen du, baina ikasle kopuru txiki bat zen; kontua da orain ehun da piko lagun horrela kudeatzea zaila dela, hotz xamarra: jendea deitu, hitz egin... Baina gaitasuna badugu oraindik orain, egoera berezietan aurre egiteko, ez galtzeko behintzat.

**Goierrri**  
eskola



**ERABAKI ZURE BIDEA**  
Ate Irekien Jardunaldia **ONLINE**  
Maiatzak 9, larunbata, 11:00etan

Eman izena [www.goierrrieskola.eus](http://www.goierrrieskola.eus) helbidean eta ezagutu ezazu **Lanbide Heziketako** gure eskaintza

• **Goi Mailako zikloak** • **Erdi Mailako zikloak** • **Oinarrizko LH**

[www.goierrrieskola.eus](http://www.goierrrieskola.eus)  
Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Koronabirusagatik ezarritako alarma-egoeraren ondorioz, martxoaren 14an ikastetxeak eta unibertsitateak itxi zituzten. Ikasleak etxetik ari dira ikasten, Internet bidezko klaseak jasotzen dituzte edota zuzenean etxerako lanak bidaltzen dizkiete. Ezohiko ikasturte amaiera bizitzen ari dira ikasleak. Hamaika egoera desberdin daude. Tartean unibertsitate ikasleen egoera dago. Unibertsitateetatik esan zuten ikasturte honetan ez direla klaseetara itzuliko, baina klaseek eta azterketek jarraitzen dute, ikasleen ezinegona areagotuz. Tasio Mertxan altsasuarra Zientzia Politikoak graduko ikaslea da, Leioako Gizarte eta Komunikazio zientzien fakultatean eta Unibertsitate Indar Batasuneko militantea da. UIBk krisialdiari aurre egiteko hainbat dinamika landu ditu.


**Zer da UIB?**

Unibertsitateen Indar Batasuna. Unibertsitatearen barruan dagoen langileria batzeko eta izendatzeko sortu zen. Duela bi urte inguru sortu zen eta gaur egun arte hainbat erronka izan ditu.

**Zer egiten ari zarete egoera honen aurrean?**

Alde batetik, egoeraren analisia egin dugu, eta, bestetik, bi dinamika abiarazi ditugu ikasleoneko laguntza eta elkarlana sustatzeko helburuarekin: ikasleek babes sarea eta apunteen bankua. Ikasleek babes sarea arazoak izan ditzaketen ikasleak laguntzeko sortu da. Unibertsitateko ikasleek boluntario sare bat sortu dugu DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleak azterketen prestaketan laguntzeko. Baita sor daitezkeen edozein motako arazoaren berri eman ere. **Beraz, egoeraren hausnarketa egin duzue. Zein ondoriotara iritsi zarete? Zein da zuen egoera?**

Alarma-egoerak Eukal Herriko Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ixtea ekarri zuen. Horrekin, martxan zeuden langileen hainbat aldarrikapen eten ziren ere. Esaterako, EHUko garbitzaileek lan baldintzak hobetzeko eskatzeko abiarazi zuten greba eten zen. Bestetik, argi geratu da hezkuntza sistema hau ez dagoela edozein egoeratan ikasleria laguntzeko prest. Kontrakoa baizik. Izan ere, edukiak lantzeko modua guztiz aldatu da, eta kasu batzuetan ezinezkoa da aurrera erama-



Tasio Mertxan unibertsitate ikasle altsasuarra etxetik ikasten. UTZITAKOIA

# "Ikasleonek lan karga handitu da"

## TASIO MERTXAN UNIBERTSITATE IKASLEA

Egoerari aurre egiteko Unibertsitateen Indar Batasuna taldeak ikasleonek arteko elkarlana sustatzeko hainbat dinamika jarri ditu martxan

tea. Unibertsitateetatik eskuak garbitzeko ebaluazio jarraia idartzeko apustua egin dutela esaten dute, hori saldu zuten, baina orohar azterketak mantendu dira, edukiak emateko modua zaildu eta okertu den arren.

**Zergatik okertu da? Nola ari zarete ikasten?**

Kasu desberdinak daude. Nire kasuan zenbait irakasgai modu telematikoa mantendu izan ditut, baina edukia emateko ez da modurik hobetena. Ezta barneratzeko ere. Ikasleek ez ditugu klaseak jaso eta bakarrik lanen bidez jasotzen dugu informazioa. Kasu batzuetan ez dago irakasleentzat partetik inolako komunikaziorik. **Unibertsitateen inplikazioa eza somatzen duzue?**

Bai. Inplikazioa eta informazio gehiago. Leheneneko momentutik, klase presentzialak itzuliko ziren jakin gabe egon gara duela gutxira arte. Azkenean ezetz esan zuten arte. Berreskurapenekin ere zer

gertatuko zen ez genekien... ez ziguten ezertaz informatzen. Bitartean, ikasleak egun hauetan bizitzen ari garen lan pilaketa izugarria izan da. Egunerok lanak aurkeztu behar ditugu, horrek dakarren lan kargarekin. **Horren aurrean, zuek ikasleonek arteko elkarlana sustatzen duzue.**

Hori da. Aipatutako bi dinamika horiekin: babes sarea eta apunteen bankua. Ikasketetan laguntza behar dutenak gurekin harremanetan jar daitezke uibnacionala@gmail.com korreioan, 688646697 telefonoan edo sare sozialen bidez. Apunteen bankua Euskal Herriko ikasketak guztien apunteen poltsa bat osatzeko dinamika bat da. Sakanan ere

## "EZOHIKO EGOERA BATEAN EGON ARREN, EZ DUGU SALBUESPENEZKO NEURRIRIK"

martxan dago, eta dagoeneko ikasle batzuk apunteen bilketan parte hartu dute eta apunteak erabili dituzte.

**Beraz, apunteen bankuan nahi duenak parte har dezake?**

Aste batzuk daramatzagu banku hori osatzen. Oinarri bat sortu dugu eta ikasketak batzuk falta diren arren, dagoeneko erabilgarri daude. Apunteak MEGAN sarean dago, Unibertsitateko Indar Batasuna helbidean. Besteak beste, apunteak zuzenean sar daitezke. EHUko eta NUPeko ikasketak izan daitezke.

**Distantzian egon arren elkarrekin ikasteko modu bat da, ez?**

Bai. Kaltetutako sektore bat gara, eta gure artean laguntzea ezinezkoa da. Badakigu unibertsitateentzat partetik ez dugula laguntzarik ez erraztasunik jasoko. Esan bezala, ikasleonek arteko laguntza eta elkarlana sustatzeko dinamika bat da. Bide honetan jarraitzeko ikasleonek artean harremana sortzeko modu bat ere bada.

## Sare sozialetan ikasleek salatzen dutenez, irakasleek garrantzia gehiago ematen diote ez kopiatzeari edukiak barneratzeari baino. Nola kudeatu dituzte azterketak?

Nik kontu hori ez dut gertutik bizi, baina jakin izan dut kasu batzuetan kontrol zorrotzak jarri dituztela azterketetan ez kopiatzeko: azterketa egiteko momentuan web-kamera aktibatuta izan, pantaila zatituta eduki edo, beste kasu batzuetan, beste kamera bat aktibatu behar izatea mahaia-zen zonalde osoa kontrolatu ahal izateko.

**Zer ondorio ekarriko ditu krisialdi honek unibertsitatean? Sistema aldatuko dela uste duzue?**

Hori jakitea zaila da. Baina ikasleek unibertsitatean oraingoz eragiteko gaitasun txikia dute. Gure artean sustatu ditzakegu dinamikak eta abar, baina EHUK, baita NUPek ere, nik EHUren kasua gertutatik ezagutzen dut, nahi dutena egiten dute. Beraz, datorren ikasturtea berdin hasiko da. Klaseak normal hasiko dira eta dena lehen bezala. Ez du eraginik izango.

**Unibertsitatean ikasteak gastu batzuk dakartza: matrikula tasak eta alokairuak. Zer gertatzen da gastu horiekin?**

Ikasleek jasoko ez ditugun klaseentzat matrikula ordaindu dugu eta diru hori ez zaigu bueltatuko. Gainera, egoeraren arabera ere, badira ikasle asko alokairua ordaintzeko lan egin behar dutenak. Eta haien diru sarrerak eten dira. Dirudienez gastuek jarraituko dute. Gainera, ikasketekin jarraitzeko matrikularekin ez ezik, hau da, datorren ikasmilaren matrikula ordaindu ez ezik, gaintzen ez ditugun irakasgaien tasa bikoiztu egiten da; eta ordaindu beharko dugu. Salbuespen egoera batean egon arren, ez dauzkagu salbuespenezko neurriak.

**Pertsonalki, nola daramazu ikasturte bukaera?**

Nahiko ondo. Pertsonaren eta ikasketen arabera da. Ni ondo ari naiz... ezagutzen dute jendea kokoteraino dagoena. Baina ezagutzen dut jendea kokoteraino dagoela bai ikasketekin bai egoera guztiarekin. Mundu guztia gaude kokoteraino etxean egoteaz, baina, gainera, egun askotan 1:00ak edo 2:00ak arte lanak egiten egon behar izatea... Nire ikasketetan praktika zuzenak ezin direnez egin, zorionekoa naiz.



Jendea Altsasuko azokan joan-etorrian.

# Etxealdirik ez aldarriendako

Langileen Eguna COVID-19 gaitzak eragindako osasun-krisialdi betean ospatuko da bihar. CCOO, ELA, LAB eta UGT sindikatuko ordezkariak beraien aldarrikapenen berri eman digute eta krisitik ateratzeko beraien formulak azaldu dizkigute

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Egutegian gorritz markatutako eguna da biharkoa, normalean, sindikatuek deituta manifestazio handiak egiten dira eta euren aldarrikapenak zabaltzeko baliatzen dituzte. ELAko Sakanako arduradun Gorka Viergek esan digunez "kalea kendu digute". Horregatik, sindikatu guztiek Internet bidezko ekitaldiak egiten dituzte aurtengo maiatzaren batean.

Egungo egoerari begiratu LABeko Sakanako arduradun Gaizka Uhartek esan digunez, "pasatzen ari garen osasun-krisi honetan, eta ondorio ekonomiko larriak izanen dituen krisi honetan, ikusi dugu nola izan den beharrezkoa bizitza erdigunean kokatzea. Gainera, azalarazi du sistema ez zegoela prestatuta honi aurre egiteko". CCOOko prentsa arduradun Joseba Eceolazak gaineratu duenez, "sindikatuok beti eskatu izan dugu lan eskubideak indartzea, beste eredu ekonomiko eta sozial bat behar dugula, zerbitzu publikoak bermatu behar direla, eta horretan langile publikoek soldata duinak eta lan baldintza duinak bermatu egin behar dizkiegula". Viergek gaineratu duenez, "argi eta garbi daukagu zerbitzu publiko sendorik ez duen gizarte batek etorkizun eskasa duela horrelako krisi batzuei aurre egiteko. Badakigu sistema kapitalista heteropatriarkal batean gaudela eta horretan elkartasunak ez daukala toki askorik". Horregatik UGTko Nafarroako idazkari nagusi Eduardo Santosek aldarrikatu du "pandemiak sartu gaituen krisitik irtenbide bidezkoago eta solidarioago bat. Krisitik irtetea, aurreko akatsak errepikatuko ez dituen, ondorio guztiak langileen bizkar gainean jarriko ez dituen. Beste ekonomia eta gizarte eredu bat" azken batean.

**"ENPRESA TXIKIAK, AUTONOMOAK ETA LANGILEAK GARA ORDAINTZEN ARI GARENAK"**

Horregatik UGTko Nafarroako idazkari nagusi Eduardo Santosek aldarrikatu du "pandemiak sartu gaituen krisitik irtenbide bidezkoago eta solidarioago bat. Krisitik irtetea, aurreko akatsak errepikatuko ez dituen, ondorio guztiak langileen bizkar gainean jarriko ez dituen. Beste ekonomia eta gizarte eredu bat" azken batean.

**Aurrera begira**

Egungo krisitik ateratzeko UGTko kideak uste du ekonomia eta enplegua suspertzeko plan handi bat behar dela, "adostasun politikoa, ekonomiko eta sozial handienetik abiatuta egina, bai Parlamentuan, bai Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan". Santosek zehaztu duenez, plan horrek hiru oinarri nagusi izan behar ditu: ekonomia hazkundera eta

kalitatezko enplegua bultzatuko duten anbizio handiko neurriak; zerbitzu publikoak indartzea, bereziki gure osasun-sistema publikoa, baina baita mendekotasuna duten pertsonen arreta ere; eta gizarte-babeseko sarea zabaltzea".

CCOOko ordezkariak jakinarazi digunez, Nafarroako Gobernuari 35 proposamen jasotzen dituen txostena bidali diote. Horien artean daude, esaterako, gehien kobratzen dutenek, gehiago ordaindu behar dutela. Bestetik, eredu eta sistema publikoa, osasun publikoa, hezkuntza publikoa, langile publikoak... bermatu eta indartu behar ditugu". Eceolazak gaitzatu duenez, "langileen eskubideak bermatu egin behar ditugu, haien soldatak bermatu behar ditugu, behin-behinekotasunaren kontra borrokatu behar dugu eta enpresariak jakin behar dute euren etekinek behera egin beharko dutela, nolabait ere euren etekin horren banaketa bat eman behar delako".

LABeko kidearen iritziz, "has-teko, murrizketetatik heldu den sektore publikoa indartu beharko litzateke". Uhartek gaineratu duenez, "momentu honetan enpresa txikiak, autonomoak eta langileak gara ordaintzen ari garenak. Aldi Baterako Enplegu Erregulazio Espedienteak (ABEEE) begiratzen baditugu, oso adierazgarria da dendetan eta ostalaritzan izan dutela eragin handiena. ". LABeko ordezkariak gaineratu duenez, "Sakanan 2.000 lagun inguru egon daitezke orain ABEEEn. Horrek argi uzten du zein erabaki hartu diren. Gainera, ABEEE hori mozkinak izan dituzten enpresa oso handiak finantzatzen ari da eta haien langileen egoerak". Horregatik, "norabide aldaketa" aldarrikatu du: "jokoan dago sistema eta neoliberalismoa elikatzen edo berreraikitzen jarraitzea, edo beste eredu batera joatea. Eta ez bagara beste eredu batera joaten gaur bizi dugun egoera hau errepikatuzera kondenatuta egonen gara".

**"ZAINZA, OSASUNA, BERDINTASUNA, ELIKADURA... LANDU, ZAINDU ETA BERMATU BEHARKO DITUGU"**

ELAko kideak argi du "krisi honek gabezia batzuk azaleratu dituela. Alegia, indibidualismoaren gezurra; arlo pribatuaren irtenbidea eta egin diren pribatizazioak okerrak zirela. Gainera, argi gelditu da ez direla eraginkorrak". Viergek nabarmendu duenez, "argi daukagu austeritate eta enpresetan langileen eskubideak murriztea ez duela zertan krisi honen irtenbidea izan behar". Horregatik aurreko krisialditik ateratzeko erabilitako "errezetaren" kontra egin du. Eta gogorarazi du hark Sakanan hainbat enpresen itxiera ekarri zuela. Horregatik, "gure bizitzarako funtsezkoak diren zaintza, osasuna, berdintasuna, elikadura... Horrelako esparruak landu, zaindu eta bermatu beharko ditugu".

**Aitortza**

Osasun-krisialdi garaian premiazko diren zerbitzuetan aritu diren langileei aitortza egin diete sindikalistek. Santosek "pandemiaren aurkako lehen lerroan buru-belarri egon diren langileen ahalegina eta profesionaltasuna" aitortu du. "Pertsona horietako askok, baldintza kaskarretan eta behar besteko babesik gabe, osasuna jokatu dute eta, kasu batzuetan, bizitza lanean utzi dute". Viergek eskaera egin du: "krisiaren aurrean gizarte osoa aurrera atera duten feminizatutako sektore prekarioei gizarteak orain nolabaiteko erantzun bat eman behar die, beraien bizi baldintzak duintasunez betez".

Eceolazak dioenez, "gizarte guztiak, sindikatu guztiok eta instituzio publiko guztiek jakin badakigu koronabirusaren aurrean ongizatearen estatua oinarritzeko izan dela eta, horregatik, hori aldarrikatu eta horren garrantzia azpimarratu behar dugula".

Horregatik, Uhartek esan digunez, "aurrera begira gero eta garrantzia handiagoa hartzen du bizitzaren mesedetan egonen den ekonomia bat eraikitzea. Eta bizitza erdigunean kokatzea".

Sindikatu guztien ekitaldietan presente izanen dira premiazkoak izendatutako sektoreetako langileen ahalegina. Modu batera edo bestera, sindikatuen aitortza jasoko dute. Ezohiko Maiatzaren 1 batean, sindikatuek beraien banderak ez dituzte haizatuko, baina bai bidezko eredu baterako aldarrikapenak.

# "Helburua kurba zapaltzea zen, eta lortu dugu"

**MARIA ANGELES RUBIO MENDILUZE IRLANDAN BIZI DEN ALTSASUARRA**  
Irlandako herri batean bizi da Marian Rubio Mendiluze altsasuarra. Konfinamendua "irlandar estiloan" dute, hau da, bi kilometrora mugitzeko aukera dute

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Maria Angeles Rubio Mendiluze altsasuarra duela 30 urte Irlandan bizi da. Hasieran Dublinean bizi zen, baina duela 17 urte County Clare eskualdera joatea erabaki zuten, Irlanda mendebaldean. Lisdoonvarna herrian bizi da, Mastchmaking Festival ospetsua egiten duten tokian. Gainera, Moher amildegiengatik zonalde oso turistikoa da. Baina, orain, leku ia guztietan bezala, tabernak, jatetxeak, hotelak eta abar itxita daude. Irlandan kurba ospetsua "zapaltzea" lortu dute.

## Zein egoeratan dago Irlanda?

Irlandan momentu honetan nahiko baikor gaude. Kutsatuen kasuak jaisten ari dira. Otsailaren 29an izan zen lehenengo kasua eta martxoaren 12an lehenengo neurriak hartu zituzten. Orduan, garai hartan esan zuten martxoaren bukaeraraino 150.000 kasu inguru aurreikusten zituztela eta ez da iritsi. 20.000 kasu inguru izan ditugu. Beraz, ez gara tontorrera inoiz iritsi. Hemengo helburua zen kurba delakoa zapaltzea, eta lortu dugu. Momentu honetan esan dezakegu kurba hori zapalduta dagoela eta transmisioa bat baino gutxiagoa dagoela, hau da, pertsona bat kutsatzen bada pertsona bat baino gutxiago kutsatzen duela.

## Zergatik gertatu da hori? Zer neurri hartu ditu gobernuak?

Ikastetxeak eta unibertsitateak, eta areto publiko guztiak, liburategiak, museoak, erakusketa gelak eta abar, itxi zituzten martxoaren 13an. Lehenengo txanda batean, nolabait esateko. Hemen eskolak ixtean mugimendu asko

murritzten da. Jende gehienak kotxez eramaten ditu haurrak eskolara nahiko sakabanatuta bizi garelako. Dublinean eta hiri handietan izan ezik. Beraz, alde horretatik kontaktu hori, transmisio hori, murritztu zen. Gainera, kontuan izan behar da irla batean bizi garelako. Mugaren kontrola oso erraza da, eta nabaritzen da. Neurri horiek martxoaren 12an hartu zituzten. Baina ikusi zen transmisioa oso handia zela, eta osasun zerbitzua ez kolapsatzeko, helburua gain horretara ez iristea eta kurba zapaltzea zenez, apirilaren 12tik aurrera erabaki zuten neurriak zorroztea eta dena ixtea: jatetxe guztiak... Ikusi zuten horrela ezin zela. Gehien bat Italiako edo Espainiako Estatuko kasuak ikusita. Beraz, lock down deitzen dena, hau da, dena ixtea erabaki zuten. Supermerkatuak, farmaziak, lore-dendak eta burdindegiak daude irekita. Momentu honetan arrisku handiena zahar-etxeetan, ospitaleak ez diren, baina, behar bereziak dituzten pertsonak artatzen eta gaixoak zaintzen dituzten guneeetan dago.

## Zer gertatzen da gune horietan?

Transmisioa gune horietan dago orain. Gune horietan sartu da eta laurden bat alarma gorrian daude. Gobernuak osasun zerbitzuetan lan egiten zuten langileak egoitza horietara bidali ditu, eta norberak babesteko ekipamendua eraman du. Berez, egoitza horiek ospitaleak ez direnez, ez zituzte ospiltaleetan zituzten segurtasun neurriak. Eragin handia dago. **Zenbat hildako egon dira?**

1100 bat hildako izan dira, eta penagarria da gehienak zahar-egoitzetakoak direlako. Egutero telebistan esaten dute gaur 20 edo 30 hildako egon dira. Gehienak, 67 izan ziren, baina bi egunetakoak batu zituztelako. Batz besteko adina 82 edo 84 urtekoa da. Estadistikak zerbakiak dira, baina zerbaki horien atzean pertsonak daude, eta telebistan hildakoen argazkiak agertzen dira eta pertsona horiei hitz batzuk eskaintzen dizkiete.

## Omenaldi bezala?

Hildako horien atzean familiak daude eta hemen hiletak oso garrantzitsuak dira. Ez dira hangoak bezalakoak. Kultura aldetik oso garrantzitsuak dira. Hileta batean herri guztiak parte hartzen du. Familia egun osoan zehar beilatokian egoten da eta jendea bertatik pasatzen da doluminak emateko. Hurrengo egunean, goizean normalean, hileta egiten da, ehorzten dute, eta, ondoren, festa egiten dute. Luzeak izaten dira. Grai batean hiru egunekoak

**"ESTADISTIKAK ZENBAKIAK DIRA, BAINA ZENBAKI HORIEN ATZEAN PERTSONAK DAUDE"**

**"LANGABEZIAN GERATU DIRENEAN, GOBERNUAK BEREHALA DIRULAGUNTZA BAT EMAN DIE"**

ere izaten ziren. Orain, ezin dira hileta horiek egin. Beraz, oso polita da esaterako oso saio ospetsu batetako aurkezleak esatea ez dakit noren ama hil dela eta berari buruzko hitz batzuk esatea. Ez direla zerbakiak adieraztea. Pertsonak dira, eta familiak doluan daude.

## Apirilaren 12tik itxialdian zaudete?

Gure konfinamendua irlandar estiloan da: bi kilometrotara atera gaitzke. Zoragarria da. Ni herrigunetik 3 kilometrora bizi naiz, eta inguruan baratza, lorategia, bizilagunak 200 bat metro-tara... Sakabanaturik gaude. Orduan, konfinamedua hori da. Baita hirietan ere. Dublinean bi kilometrora atera daitezke; jendea parkera joan daiteke. Gehienez lau pertsona joaten behar dira, eta familia bat sei kidez osatuta badago seiak joan daitezke. Baina ezin ditugu bisitak egin. Etxeak etxekeendako da. Adibidez, nire alaba Galwayn bizi da, hemendik 60 kilometrotara, eta ezin da etorri. Ezin da bidaiatu. Bakarrik supermerkatu joateko, sendagilearengana edo behar beharrezkoa baldin bada.

## Eta segurtasun neurriak jarraitu behar dituzue?

Toki guztietan. Dendetan, lurrean, marrazkiak egin dituzte, itxoiten gauden bitartean bi metro-tako urrutitik mantentzeko. Bizilagunekin elkartzen garenean ere distantzian hitz egiten dugu. Hemen askotan kotxe batetik bestera hitz egiten du jendeak. 70 urtetik gorakoendako etxean egotea gomendatzen dute. Sasoi ezin hobean badaude ere. Ez da araua, gomendioa da. Nahiko ondo eramaten dute, nahiz eta hemen herrietan traktorean edo behiek inbiltzen direnak 70 urtetik gorakoak izan.

## Bizitza aldatu zaizue?

Erabat. Apirilaren 12tik gehiago. Esaterako, igeri egitera joaten naiz eta orain itxita dago, lagunak ezin bisitatzea, eta semea eta senarra 24 orduz ditudala etxean. Gainera, zonalde hau turismotik bizi da: hotelak, jatetxeak, dendatxoak... eta orain idena itxita dago. Eta gazteak lanik gabe geratu dira. Denboraldia hasi berria zen eta orain dena itxita dago. Hala ere, gobernuak neurri ekonomiko bat hartu du eta langabezian geratu direnei dirulaguntzak ematen dizkie. Hangoekin konparatuz, hemen oso ongi ari dira. Online bidez koronabi-



Lisdoonvarna herriaren sarrera. UTZITAKOIA







Maria Angeles Rubio Mendiluze bere senarrarekin etxean. UTZITAKOIA



Lisdoorvana herriaren inguruak. UTZITAKOIA



Lisdoorvana herriaren inguruak. UTZITAKOIA

rusaren laguntza deitutakoa eskatu dezakete, eta astean 350 euro jasotzen dituzte. Hasieratik. Hemen astero ordaintzen da, eta berehala iritsi zaie laguntza.

#### **Nola bizi izan dituzu hemendik iristen ziren albisteak?**

Irlandan nahiko sentsazionalistak dira, baina egia esan ikusgarria zen. Geroz eta zenbaki handiagoak ematen zituzten, Madrilgoa ematen zuten gehien bat eta zahar-etxeetan gertatzen ari zena kontatzen zuten. Hilak zeudela eta langileek alde egin zutela. Orduan, egoera hori ikusita herrietara berehala iritsiko zela uste genuen. Ahizpa batek arlo horretan lan egiten du. Eta kezkatuta ikusten nuen. Beldurra nuen hemengo konfinamendua hangoa bezain zorrotz a izatea. Hemen ezinezkoa da. Pentsatzen nuen: zer puntutaraino egon zaitezke pisu batean sartuta, kirola egitera eta San Pedrora joatera ohituta bazaude. Psikologikoki oso gogorra izango zela pentsatzen nuen. Baina beste alde batetik familiakoak eta lagunak nahiko kontzientziatuta zeudela ikusten nuen.

#### **Hemengo albisteak ematen jarraitzen dute?**

Bai. Lehenengo Irlandako egoera azaltzen dute, eta gero Italiako, espainiar estatuko eta Estatu Batuetako egoerak aipatzen dituzte. Eguneroko Madrilgo kazetari bat agertzen da eta azken albisteetan pozik daudela esan zuen, kasu gutxiago eman zirelako. Igandeko egunkarietan ere Bartzelonako eta Madrilgo kaleak agertzen ziren, jendea gainezka. Ulergarria da. Izan ere, hemen gutxi gorabehera jende guztiak lorategi txiki bat du. Baita hirietan ere.

#### **Nola ikusten dute hemen hartutako neurriak?**

Gogorak, baina ulergarriak. Hemen sakabanatuak bizi gara eta kontaktua izateko aukera gutxiago dugu, baina han atea ireki eta erraz kutsatzeko aukera ikusten zuten. Haurren kasua oso gogorra iruditzen zaie. Astean pare bat aldiz etxetik ateratzea kontrola zezaketela uste dute.

#### **Eta nola dago jendea?**

Jendea nahiko izututa dago. Nik uste azkeneko astean, aurreko asteburuarekin alderatuta, jendea lasaitzen ari dela. Jende eta kotxe gehiago ikusten dira. Herrigunera joaten naizenean, supermerkatuan kotxe gehiago ikusten ditut. Gainera, eguraldi

oso ona egin zuen eta gazte asko atera ziren. Alkoholarekin kontsumoa asko igo da. Supermerkatuetan erosten dute, baina ulertzekoa da. Azkenean, pub guztiak itxita daude, eta hemen bizitza pubetan eta jatetxeetan egiten da. Baina adineko jendea izututa dago gazteak gehiegi ateratzen direlako. Transimisioa kontrolatu beharko luketela uste dute. Segurtasun neurriekin jarraitu beharko genukeela uste dute. Bi bizilagun ditut, 70 eta 74 urtekoak, eta orain arte astean behin supermerkatua joaten ziren. Orain erosketak ekartzeko eskatuko dutela esan didate. Jende gehiegi ikusten dutelako. Kontuz ibiltzeko esaten ari dira.

#### **Datuak onak direnez, jendea lasaitu da?**

Bai. Dena egonkortu da eta aurreko astean testak egingo dituztela esan zuten. Lehentasuna eman diete egoitzetan lan eta bertan bizi direnei, baina helburua test horiek biztanleria osoari egitea da. Maiatzaren bigarren asterako astean 100.000 test egin nahi dituztela esaten dute. Gutxi gorabehera hemengo biztanleria kontuan hartuta, bi hilabetetan guzti egingo zaiela aurreikusten dute. Erantzun inmunitarioa ikusi nahi dute. Gainera, oso garrantzitsua da positiboa ematen baduzu kontaktua izan duzun jendeari jakinaraztea. Horretarako aplikazio bat aterako dute. Frogatzen ari dira. Hasieratik esan ziguten ez-tula, sukarra edo sintomaren bat bageneukan, etxean gelditzeko eta azken egunetako kontaktuak zerrendatzeko.

#### **Neurriak luzatzea espero duzu?**

Gogorra iruditzen zaie maiatzaren 5ean neurri horiek mantentzea. Beraz, egoera honetan jarraituko dugula uste dut. Agian bi kilometro horiek handituko dituzte... izan ere, herrira joate-

## **"BELDURRA NUEN HEMENGO ITXIALDIA HANGOA BEZAIN ZORROTZA IZANGO OTE ZEN"**

## **"JENDEA NAHIKO IZUTUTA DAGO GEROZ ETA JENDE GEHIAGO IKUSTEN DELAKO KALEAN"**

ko kotxea hartu behar dut. Ikastetxeak oraindik itxita mantenduko dituzte. Maiatzaren 1a, astelehenera mugitzen dute, bank holiday deitzen da, eta aste honetan bigarren etxebizitzara ez joateko esateko operatibo berezi bat egon da. Gainera, egoera honek gobernurik gabe harrapatu zigun. Hauteskundeak otsailaren 7an izan ziren eta elkarrizketekin hasi ziren, baina koronabirusa etorri zen eta elkarrizketekin jarraitzen duten arren, oraindik gobernua osatu gabe dago. Atzeratu egin da. Orain badirudi denak oso ongi ulertzen direla eta lagunak direla. Duopolia, betiko partiduak, ezberdintasunak alde batera utzi dituzte eta moldatu dira.

#### **Osasun krisia politikaren gaineratik egon da.**

Erabat. Hemengo politikoak hangoak baino zibilizatuagoak dira. Han gertatzen dena, onartezina da. Hemen ez dituzte puntuak irabazi behar. Hala ere, jendea ari da esaten hilabete pare bat daramatzagula gobernurik gabe, eta osatzea eskatzen dute. Partidu horiek elkartzen badira aldeketa gutxi egongo dira, baina beno. Krisi honek ondorio onak ekarri ditu. Hutsuneak ikusteko balio izan du. Hemen osasun publikoa eta pribatua daude. Publikoa nahiko gaizki dago. Orduan, legin zuten lehenengo gauza, modelo bakarra jartzea izan zen. Dena publikoa jarri zuten. Estatuak pribatuak xurgatu ditu beharren arabera. Beharrezkoa bazen, pribatua publiko bihurtzen zuten. Ez dituzte asko behar izan, ez delako sistema kolapsatu. Baina osasun seguru pribatua dugunoi aseguru etxeak esan digu % 40 itzuliko digutela krisi honek irauten duen bitartean, dagoeneko osasungintza pribatua ez dagoelako.

#### **Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Nik espero dut hegaldiak egotea eta Altsasura joan ahal izatea. Udan joaten naiz. Gabonetan egon nintzen ere. Normalean udaberrian, jubilatuta nagoenez, Alikanteran joaten gara eta aurten ez dut uste joango garenik. Agian uztailean edo abuztuan Altsasura joateko aukera dugu. Ez dakit. Kotxez joatea pentsatu dugu. Baina mentalizatzen ari naiz agian ezingo dudalako joan. Itxaropen txiki bat dut. Dena den, asteka bizitzen ari gara. Ezin da asko planeatu. Egia esan, lasai bizi gara hemen.

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Futbolari lotuta, aspalditik eza gutzen dugu Iokin Lobo Ieregi altsasuarra. Altsasu taldeko futbolaria txikitatik, Leonen kirol ikasketak egin eta Sakana-ko futbol campuseko eta Osasuna Fundazioko Altsasuko campuseko entrenatzaile ibili zen, besteak beste. Aurtengo denboraldian Osasunako harrobiko taldeen prestatzaile fisikoen departamenduko koordinatzaile lanetan hasi zen eta bertan oso gustura dabilela aitortu du. Aldi berean, Lakuntzako Lagun Artea taldeko futbolaria da eta bertan oso gustura dabilela aipatu du. **Altsasu, Leon, Gasteiz, Iruñea... futbolaren inguruan zenbat buelta, ez?**

(Kar, kar...) Herrian hasi nintzen, 6 urterekin Altsasu futbol taldean, eta urte luzeak egin nituen bertan. Leonen Ariketa Fisikoen eta Kirolaren Unibertsitate ikasketak egin nituen, 5 urte, eta tarte horretan Cultural Leonesa futbol taldean ibili nintzen. Ondoren Hezkuntzako Masterra egin nuen, eta Altsasu futbol taldean hasi nintzen atzera ere jokatzeko, Gasteizen entrenatzaile pertsonal gisa lan egiten hastearekin batera. Futboleko entrenatzaile ikastaroa egin nuen ere, eta Sakana-ko Mankomunitateko futbol campusean entrenatzaile hasi nintzen. Alaves futbol taldean prestatzaile fisiko izateko aukera izan nuen. Hasieran infantelekin teknifikazio entrenatzaile gisa hasi nintzen, eta hortik kadete mailara pasa eta handiei ere laguntzen hasi nintzen, prestatzaile fisiko lanetan.

**Alaveseko harrobietako prestatzaile fisiko izatetik Osasunan lan egitera nola pasa zinen?**

Osasunan ezagutzen ninduten, izan ere, nik gidatu nuen Osasuna Fundazioaren Altsasuko lehenengo futbol campusa, campuseko zuzendaria izan nintzen. Nire ibilbidea jarraitu zuten, joan den denboraldian deitu ninduten, denboraldi honetarako ere, eta, azkenean pausua eman nuen eta 2019/2020 denboraldian Osasunan hasi nintzen lanean eta oso pozik nago hemen, disfrutatzen. Eta, bestalde, aurten preferente mailan dabilen Lakuntzako Lagun Artean hasi nintzen futbolari, eta gogo askorekin nago konfinamendu hau bukatzeko eta berriz galtza motzak eta botak jantzi eta partidak jokatzeko.

# "Osasunan landutako prozesuarekin oso pozik nago"

**IOKIN LOBO** OSASUNAKO PRESTATZAILE FISIKOEN DEPARTAMENTUKO KOORDINATZAILEA

**FUTBOLA** Osasunako harrobian egindako lanarekin pozik dago altsasuarra, eta aldi berean Lagun Arteko futbolaria denez, igoera fasea jokatzeko gogotsu dago



Iokin Lobo Ieregi, Osasunako teknikarien elastikoarekin. UTZITAKOA

**Osasunako harrobiko taldeetako prestatzaile fisikoen departamenduko koordinatzailea zara. Hitz potoiloak dira horiek.**

Osasunako harrobietako taldeekin lan egiten dut, benjaminen taldetik jubenilen edo gazteen mailara bitartean, 8 urte-tik 18-19 urte bitarteko haur eta gaztetxoekin. Benjaminen mailako talde bat, kimuen taldeko bi talde, haurren mailako bi talde, kadeteen mailako 2 talde eta jubenilen mailako 2 talde ditu Osasunak, guztira 9 talde. Sakandar bakarra dago, Adei Mendinueta. Finean, nik maila edo etapa bakoitzaren helburu eta edukiak zehaztu eta planifikatzen ditut, bilerak egiten ditut bai prestatzaile fisikoekin eta baita entrenatzaileekin ere, eta prozesu guztia prestatzen dugu. Horretaz gain, talde bakoitzeko entrenamenduen karga kontrolatzen dut prestatzaile fisikoekin.

Aurten lehenengo taldetik jaso dugun GPS sistemaren laguntza dugu. Gure prozesuari kalitate gehiago ematen ari zaio sistema hau.

**"OSASUNAKO HARROBIKO TALDEEN ENTRENAMENDUEN PLANIFIKAZIO GUZTIA EGITEA DA NIRE LANA"**

**Herrietan dauden Osasuna Fundazioko taldeak ere zuek bideratzen dituzue?**

Ez, aholkatu eta laguntza ematen dugu. Baina hori klubetik kanpo dagoen beste atal bat da, Osasuna Fundazioari dagokio. Hor, batetik, fundazioko eskolak daude eta bestetik teknifikazio taldeak. Teknifikazio taldeetan, herrietako taldeetatik hautatzen dituzten jokalariek daude, eta eurekin entrenamenduak egiten dituzte.

**Koronabirusaren pandemia baino lehen, nolakoa zen zure lan egun bat Taxoaren?**

Taxoaren bulego bat dago metodologian gauden langileendako, bai atezainendako, bai metodologia orokorrendako eta baita niretzat ere, eta han lan egiten dut. Prestatzaile fisikoekin bildu, taldeen informazioa konpartitu eta arratsaldeko jardunaldia prestatzen dugu. Kategoria txiki-kiko taldeen entrenamenduak arratsaldeetan izaten dira, 16:00etatik 20:00etara. Egun osoa ematen dut Taxoaren.

**Aurrendenboraldian, liga hasieran, liga erdian... entrenamenduak ere aldatuko dira, ez? Astero entrenamenduak egokituko dituzue...**

Bai, astero, hilero... etengabe egokitzen ditugu entrenamenduak. Azkenean aurrendenboraldian landu beharreko edukiak ez dira denboraldi barruan sartuak gaudenean bezalakoak. Edukiak, ariketak eta saioen planteamendua egokitu eta aldatu beharra dago.

**Prestatzaile fisikoa zaren aldetik, horrenbeste aldatu da entrenatzeko modua edo luzaketak, abdominalak... betiko ariketak dira baina beste modu batean landuta? Kirolera ere iraultza iritsi da?**

Azkenean prozesu guztiak aldatzen dira; gehiago ikasten da, medio edo bitarteko gehiago ateratzen dira, eta horrek guztiak ematen dute berritzeko eta prozesua aldatzeko aukera, eta, finean, guztia hobetzeko aukera. Lehen aipatu dudako GPS sistema, esaterako. Futbolekin bi alde daude; lehenengo partea da ariketa fisiko espezifikoen lana, futbolaren osagarria dena, eta bestea futbola bera da, futbolaren parametro horiek kontrolatzea. Futbola aldakorra da, eta ildo asko kontrolatu behar dira: aurkari bat dago, taldekideak... gauza gehiago kontrolatu behar dira. **Txikia zinenean Altsasu taldean entrenatzen zenuen modua, eta**

### Osasun haur batek entrenatzen duena, ezberdinak dira?

Gauza batzuk amankomunak dira eta besteak ezberdinak. Herriko talde batean edo Osasuna talde batean entrenatzeko planteamendua desberdina da, helburuak ere ezberdinak direlako, bitartekoak ere, instalazioak ere... eta gauza horiek garrantzitsuak dira prozesua planteatzeko. Baina futboleko jokatzearen grina, ongi jokatzearena, ongi pasatzearena... hori talde guztietan ematen da. Dena den, Osasunako taldeetan jokatzeko duten jokalarien ikuspuntua aldatzen da, garbi dute zer nahi duten. Nahiz eta haur eta gazteak izan, Osasunak jokatu nahi dute eta futbolaren bidean segi. Azkenean Altsasun edo Sakanako beste edozein herritan haurrak eta gazteak futbolera doaz lagunekin egoteko eta ongi pasatzeko, baina Osasunako jokalariek beste ikuspuntu batetik ikusten dute, errendimendu aldetik.

### Kontentu zaude egindako lanarekin?

Bai, Osasunako harrobian landutako prozesuarekin oso pozik nago; jokalariek ere pozik zeuden, entrenatzaileek ere ikusten zuten prozesua berritzen eta hobetzen zela, eta alde horretatik oso kontentua. Taxoaren poliki-poliki sartu dut nire ikuspuntua, nire marka utzi dut. Ahal dudan guztia egin dut eta disfrutatu dut.

### Eta bat batean, mundua gelditu du COVID-19 birusak: futbol entrenamenduak, denboraldiko futbol ligak... guztia geldirik dago. Orain nola zabiltzate lanean? Futbolarietan zuzeneko saioak egiten dituzue?

Lehenengo momentutik nire departamenduko jendea, prestatzaile fisikoak aktibo zeuden baina orain Aldi Bateko Enplegu Erregulazioan daude langile gehienak, eta orain ni nago dena prestatzen. Prozesua nolakoa da? Guk futbolarietara entrenamenduak bidaltzen dizkiegu, eta etapa bakoitzerako formatu ezberdina daukate. Hiruzpalau egun planteatzen ditugu: indarreko eguna, erresistentzia eguna, abiaduraren eguna... Badakigu jokalariek gehienek euren etxeetan espazio gutxi dutela eta testuinguru ezberdinak planteatzen ditugu.

### Futbola etxeko pasilloan...

Bai, ni ere pisu batean nago, familiarekin, eta nire bideoetan ere espazio txikia ikusten da. Entrenamendua bi asterako bidaltzen dugu. Lehenengo astean Zoom aplikazioarekin online



Lagun Artearekin igoera fasea jokatzeko gogotsu dago lokin Lobo. UTZITAKOIA

saioa egin genuen, taldekideak elkarrekin biltzeko, taldea garelaren sentitzeko, alde psikologiko hori lantzeko. Eta bigarren astean, Google Classroom plataforman informazioa partekatzen dugu futbolarietara, bideoak, zuzenketak egiten ditugu eta prozesua bideratzen dugu.

### Zurumurru asko daude eta denetatik entzun da, baina momentuz Nafarroako Futbol Federazioak ez du 2019/2020 denboraldiarekin zer gertatuko ote den behin betiko erabakirik hartu. Nobedaderik al duzue edo dena airean dago?

Nire ustez harrobiko mailetan zaila izango da zelaira bueltatzea Nafarroako mailako lehiaketan. Estatuko Ohorezko Mailan dabilen Osasuna talde jubenila litzateke, akaso, zelaira bueltatzeko aukera izango lukeen taldea, maila nazionalean aritzen delako, baina ez dakit zein formatutan, oraindik ez dago behin betiko erabakirik. Nafarroako Futbol Federazioan, uste dut maila gorenetako ligak itzuliko direla, baina ez dago itxita, oraindik ez dago erabaki ofizialik. Planteamendu eta proposamen batzuk entzuten dira, baina ez dago erabaki argirik; pentsatzen dut aurki jakingo dela.

### Entzun da ez dela jaitsierarik egongo eta soilik igoera faseko play-offak jokatu direla...

Guztia airean dago. Ea noiz bukatzen den hau guztia, eta horren arabera planteamendu baten edo bestearen alde egingo du federazioak.

### Preferente mailako 2. postuan dago Lakuntzako Lagun Artea, Beti Casedano liderretik puntu batera. Hortaz, Maila autonomikora igotzeko fasean zaudete. Uste duzue Maila Autonomikorako igoera fasea jokatu duzuela?

Esan dizudan bezala, ez dago behin betiko itxita, baina Beti Casedano liderra maila autonomikora igoko litzateke eta 2. eta 3. postuan gauden taldeek, guk eta Mutilberak, eta beste multzoko Aluvionek eta Muskariak, laurok jokatu genuke igoera, jokatu gero, baina ez dakit zein formatutan. Whatsappeko Lagun Arteko taldean zehozer hitz egin da, baina ez da zehaztu.

### Hurrengo denboraldian Osasun jarraituko duzue lanean edo beste bide bat hartuko duzue?

Momentuz pozik nago Osasunak. Langileei esan diete formatua eta kontratuak mantenduko dituztela hurrengo denboraldirako, konfiantza hori eman digute, ea zer tokian, hori ez dakigu. Askari naiz disfrutatzen Osasunak, bertako jendearekin jarraitu nahi dut, oso pozik nago nire departamenduetarekin, teknikariek... Taxoaren oso familiarra

da guztia, oso gustuko dut eta oso pozik nago, jarraitu nahi dut. **Euskaraldian gaude, zein presentzia du euskarak Taxoaren?**

Denetarik dago, postu batzuetan euskaraz hitz egiteko aukera dago, beste postu batzuetan trebatzen ari dira, eta entzuna dut asmoa dagoela euskararen aldeko formakuntza bat egitea Osasunak. Ni euskaldunekin euskaraz aritzen saiatzen naiz.

### Krisi honek futbola aldatuko du? Nola etorriko da hurrengo denboraldia? Ikuslerik gabe, ateak itxita jokatu dira partidak? Ikusle gutxirekin?

Ea nola bukatzen den hau, zein ondorio dauden eta hortik aurrera zein planteamendu egiten duten: itxita jokatzeko, ikusle murrizketarekin... ez dago oso argi, zaila da esatea.

### Osasunako lana, Lagun Artean futbolari... ez al da gehiegizko? Nola moldatzen zara?

Horrela da nire bizitza! Lagun Artean, astean behin bakarrik joaten naiz entrenatzera Lakuntzara, gero Taxoaren entrenatzen dut gimnasioan. Bestalde, astelehenetik ostiralera Taxoaren lana egiten dut eta asteburutan batzuetan Osasunako taldeen partidak ikusten ditut; ez dut obligatorik baina sarritan joaten naiz. Bestalde, Zarautzen formakuntza egiten ari naiz, mugimenduen analisia pixka bat ikasten. Eta aisialdian lagunekin eta neskekin egoten saiatzen naiz. Bartzelonan ikasten ari da neska, eta bertara joaten joaten naiz tarteka. Bidai asko...

### Zelako egutegia!

(Kar, kar...) Topera nabil, baina pozik. Batzuetan estresatzen naiz, baina disfrutatzen.

### Ea Lagun Arteak igoera fasea jokatzeko aukera duen...

Bai, taldean ilusio handia dugu jokatu ahal izateko, Maila Autonomikora igotzeko aukera hori izateko. Whatsapp taldean ere moduan daude.

### Ezingo litzateke behar bezala ospatu...

Beno, dena den merezi dugu; horrenbeste partidatan hori egon gara, puntuak lortu ditugu eta denboraldi ona egin dugu.

## "LAGUN ARTEAN IGOERA FASEA JOKATZEKO ILUSIO HANDIA DUGU; ONGI IBILI GARA, MEREZI DUGU"



Frontoira bakarka itzuliko dira.

## Kirolari profesionalen eta federatuen buelta

**KIROLDEGIA** Astelehenetik aurrera banakako entrenamendua egiteko aukera izango dute

Espaniako Gobernuak deskonfinamendu plan bat diseinatu du, lau fase izango dituena. Neurri guztiak probintziara aplikatuko dira eta ekainaren amaierarako "normaltasun berria" iritsiko dela aurreikusten du Pedro Sanchezek gidatzen duen gobernuak. Lehenbiziko fasea 0 fasea da, egungoa. Larunbatetik, maiatzaren 2tik aurrera, helduei egunero ordu bat kalera ateratzea baimenduko zaie, ariketa fisikoak, kirola edo paseoak egin ahal izateko, baina beti ere bakarka. Hortaz, kirolarietara ate bat zabaldu zaie. Bestalde, kirolari profesionalak eta federatuek astelehenetik aurrera banakako entrenamendua egin ahal izango dute, eta liga profesionalen oinarriko entrenamenduak hasiko dira. Hortaz, gure pilotari, txirrindulari, futbolari, saskibaloi-jokalarik eta kirolari guztiek, modu ez ohikoan bada ere, etxetik atera eta entrenatzeko aukera izango dute.

Neurria pozik hartu dute gure kirolarietara, etxean entrenatzea ez delako berdina. Beraz, gutxi-ka, egunerokotasuna berreskuratzeke lanetan hasiko dira. Hemendik aurrera, kirol federazioek lan andana izango dute itzulera hau nolakoa izango den erabakitzen.



Mintzakideak euskaraz hitz egiteko bideo-deian. UTZITAKOIA

## Biltzeko formatua baino ez da aldatu

Mintzakideak euskaraz hitz egiteko elkartzen diren taldeak dira. Konfinamenduak biltzeko formatua aldatu duen arren, mintzakideak elkarrekin aritu dira egunotan. Ekimen bereziak prestatu dituzte ere

### SAKANA

Astean behin, ordu batez, mintzakideak euskaraz hitz egitera biltzen dira. Talde bakoitzak erabakitzen du tokia, eguna eta ordua. "Normalean pote bat edo kafe bat hartzen dute. Mintzakide mota asko daude, baina Sakanan ia denak tabernaren inguruan dira. Arakilen izan ezik; liburu bat irakurtzen dute eta hilabetean behin

komentatzen dute". Aitor Irigoien Sakanako Mintzakide ekimanageren dinamizatzailea da, eta koronabirusa zela eta alarma egoera ezarri zutenean, biltzeko modu berriak bilatu behar izan zituen: "Bideo-deiak egiten dituzte".

Etxarriko mintzakide taldea martxoaren 14an biltzekoa zen. Baina bertan behera uztea erabaki zuten. "Ni harritu nintzen.

Konfinamendua igandean hasten zen, eta aurretik ez biltzea erabaki zuten". Hurrengo astean, Mintzakide programa "ofizialki bertan behera" gelditu zen. "Baina formatu horretan". Hortaz, bideo-deien "mobidarekin" hastea erabaki zuten. "Taldeak bideo-deien bidez elkartzera animatu nituen. Batzuk aplikazioak jaitsi dituzte eta beste batzuk Whatsapp bidez

ari dira egiten". Hala ere, Irigoienek esan duenez, konfinamenduen hasierako egunetan "ez nekien zer egin", eta bideo-deien ideia Bilboko nagusitik etorri zen: "Mugitzen hasi ziren eta bideo-deiena proposatu zuten. Nik Sakanako Mankomunitateko Izaskun Errazkin euskaraz teknikiari proposatu nion eta ados zegoen".

Sakanan Mintzakide 15 talde daude. Hala ere, egunotan ez dira guztiak biltzen: "Badira Mintzakide taldean urte asko daramatenak, eta beraiendako ateratzeko aitzaki bat da. Orduan, zentzu hori galdu duenez ez dute bideo-dei bidez egin nahi. Badira gurasoak direnak eta ordutegi zehatz bat jarraitzeko zailtasunak dituztenak ere". Konfinamenduen aurreko ordutegiak mantentzen dituztela azaldu du Irigoienek, baina bideo-deiek ordutegien arabera "margena" ematen dutela esan du. Bideo-deietan "tabernan egongo balira bezala" aritzen dela esan du Irigoienek: "Imajinatzen dut konfinamenduan zer moduz dauden eta horrelako gaiak aterako direla".

### Bideo lehiaketa

Itxialdia seguruenik mintzakide taldeen gai nagusia bihurtu denez, konfinamenduen inguruko bideo lehiaketa antolatzea erabaki zuten. "Euskal Herrian mintzakide talde asko daude, eta haietako baten ideia 40 segundoko bideoak egitea izan zen. Berrogeialdian, 40 segundo". Iri-

goieni ideia gustatu zitzaion eta ekimena "deigarriagoa" egiteko Sakanako produktuekin osatutako saria proposatu zuen. Zazpitan aurkeztu dira.

Konfinamenduen bideo lehiaketaren oinarriak errazak ziren: konfinamenduen inguruko bideo bat izan behar zuen, 40 segunduko "nahiz eta luzeagoak izan diren" eta estiloa librekoa zen: "Batzuk irudiekin adierazi dute, beste batzuk hitz egiten, argazkiekin...". Irabazleak Aitziber Irigoien eta Irati Irigoien izan dira. Epailak Aitor Irigoien bera eta Izaskun Errazkin Sakanako Mankomunitateko euskaraz teknikiari izan dira. "Bakoitzak hiru bideo aukeratu behar genituen eta 5, 3 eta 1 puntu eman". "Kasualitatez" bere arrebak eta bilobak irabazi dute. "Berdinketa egon zen, eta Izaskunen bikoteak aukeratu zuen irabazlea".

"Nire nahi eta desio pertsonala da ekainean utziko digutela pixka bat elkartzen; metro bateko distantziarekin bada ere". Ikasturtea "ongi bukatzeko" aukera izango dutela uste du Irigoienek.

Asteburuan Alde Zaharreko Euskal festak ospatu behar ziren Altsasun, eta urtero bezala ELE festaren barruan mintzodromoa antolatuta behar zuten mintzakideek. Festak bertan behera gelditu direnez, "bere ordez Euskal Herriko mintzodromo birtuala" izango dute maiatzaren 3an. "Edozeinek parte har dezake, eta ez da beharrezkoa talde osoak izen ematea".

## Establezimenduek doako itzulpen zerbitzua erabil dezakete

Sakanako Mankomunitatearen Itzulpen Zerbitzuak testuak euskarara doan itzultzen ditu establezimenduentzat

### SAKANA

COVID-19 gaitzak eragindako krisialdiak makina bat arlotan bat-bateko neurri ugari hartzea ekarri du. Neurrien edo aldaketen berri emateko ohar eta karreteletan, askotan, euskaraz ez da presente egon. Euskaldun batek baino gehiagok sumatu du gabezia hori krisialdi honetan. Baita Sakanako Mankomunitatean ere. Horregatik, Mank-ek bere doako Itzulpen Zerbitzuaren berri eman ez Sakanako merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetako nagusiei mezua bidali



Itzulpenak doakoak izanen dira.

die: "COVID 19 dela eta, une zailak bizitzea tokatzen ari zaigu. Dena den, gogoratu kartel edo ohar bat euskaratu behar baduzu, Itzulpen Zerbitzura bidali dezakezula".

Zerbitzuko arduradun Maite Iparragirrek azaldu digunez, "testua laburra bada (gehienez 20 hitz), argazki bat atera eta Whatsapp bidez 608 007 802 zenbakira bidali daiteke". Testu luzeagoak itzultzea nahi dutenen kasuan, berriz, itzulpenak@sakana-mank.eus. Aldi berean, Iparragirrek gogorarazi du establezimenduetako web orriak ere itzultzen dituztela, "baita sare sozialetara (facebook, instagram, etab.) bidaltzen dituzun mezuek ere". Itzulpen Zerbitzua erabili nahi dutenekeuren testuak word formatuan bidali behar dituzte. Zerbitzua doakoa da.

## Bizipenak partekatze gonbidapena

Etxealditik Euskaraldira ekimenak hizkuntza-ohiturei buruz hausnartzera gonbidatu gaitu azken egunotan

### SAKANA

Igandean despedituko da Etxealditik Euskaraldira ekimena, udazken akaberan izanen den Euskaraldiaren bertze ariketa izan nahi duena. Ekimenarekin etxeokan eta gertukoekin ditugun hizkuntza ohiturak hausnartzera bulkatu nahi zuten jendea. Eta norberak egoki joz gero, erdarazko harreman horiek euskalduntzeko pausoak ematera gonbidatu du. Bideo bidezko proposamenak ere izan dira hori errazteko: euskaraz jo-

lastu, online poteoa, etxeko bazkaria, esker mezuak, erosketak eta zinema etxean.

Ekimena despeditzeko Euskaraldira eskatu dute "azken egunetako bizipenak gogora ekarri eta zerbait sortzea: argazki bat, bertso bat, marrazki bat..." Bizipen horien adibideak ere zabalduko ditu koordinazio taldeak. Sormen horiek iganderako prest egon beharko dute, Euskaraldira eskatu baitute hari argazkia egitea eta igandean sareetan zabaltzea.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

## Ahots

Ahots bat bada, denboraren oihartzun ilunetatik bueltan. Ahots bat, kimu berria kolorez estali nahian ideia atzerakoiak. Sistemarekin haserre direnak erakarri nahi dituenak, arrazoi bila dabilenari aitzakiak ematen dizkiona. Inposaketaren mailuz askeak zapaldu nahi dituenak. Zalantzan dagoenari bere konponbide sinpleak eskaintzen dizkiona. Armen salmenta askeaz, mendeku bila dabilzanezi tresnak eman nahi dizkiona. Nostalgiokoengan kuarteletako amets zaharrak berpizten dituenak. Gatazkak indarrez konpontzea posible dela uste duena. Injustiziak injustiziaz ordainarazi nahi dituenak. Begia begi trukean sinisten duena.

Kimu honen hazia han egon da luzaro. Lurpean itxoin du denbora luzez. Behar dituen ur eta argia jaso duen arte zain egon da.

## KOLORE DESBERDINAK UDABERRI HONETAN, KOLORE DESBERDINAK TALDE GUZTIETAN

Berrogei urtez zain, diktaduren zauriak ahaztu arte, ubeldurak eta zentsura ahaztu arte. Sare sozialen indarrak kontzientziak bahitu dituen arte. Betiko akatsetan erortzea zilegi dela erabaki duten arte. Entzun nahi dutena entzunarazi dieten arte. Ezkututik begira, otso beltzak bere ahoan sartzea eskaini die belardiko haizeaz kexu diren ardi dohakabeei. Otso beltzak badiren ere ahanzi duten arte.

Kolore desberdinak udaberri honetan, kolore desberdinak talde guztietan. Bozkak lortu nahian nork bere partida irabazi nahian. Jokoz kanpo jokatzeko ari direnak ez al dira iritsiko golik sartzera. Jokoz kanpo geldituko al dira jokoa suntsitu nahi dutenak.

## HARA ZER DIEN

### Konfinamendua, familiak, pantailak eta harremanak

#### SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Bizitzen ari garen egoera hau berria da guztiontzat, inor ez da konfinamenduetan aditua eta inork ez daki zehazki zer edo nola egin. Bapateko konfinamendu honek guztiei gainezka egin digu. Inoiz bizitzea espero ez genuen egoera batean gaude.

XXI. mendean gaudelarik, "pantailen konfinamendua" dela esan dezakegu. Pantailak dute protagonismo guztia: harremanetarako, elkarrizketak izateko, aisialdirako, albisteak ikusi eta jasotzeko, ikasketetarako, lana egiteko, bakardadean egoteko, lagunartean sentitzeko, jakin-mina asetzeko, informazioa lortzeko, desinformazioa...

Ordenagailutik eta mugikorretik egiten dugu lana, ordenagailuarekin ikasten dute seme-alabek....

A zer zortea pantailekin pasatzea konfinamendu hau! Edo uste duzue telelana egiten ari garenok horiek gabe egiterik izango genukela? Ikasleak irakasleekin konektatuta egoterik izango luketela? Lagunekin? Argi dago erantzuna.

Zentzuz jokatzeko da hoberena inposatutako egoera honetan. Zentzuak aukera ematen digu ezbeharren eta larrialdien aurrean iparra ez galtzeko, presak edo beldurrak ez gidatzeko; ez dezagun ahaztu hemen sufrimendua norabide biko dela: gure seme-alabentzat eta gurasoentzat.

Nerabeekin tratatzeko formula berririk? Bizi garen emozio hain biziak kudeatzeko modu berririk? Errezeta magikoak egun hauetan larriturik ez sentitzeko? Inposatutako bizikidetzako egoera baten aurrean gaude eta errezeta majikoak ez dira existitzen. Bizikidetzako hau eramangarriago egiteko, harreman afektiboak eta lotura positiboak landu beharko ditugu, horrela bizikidetzako erlaxatzea, jasangarria eta guztientzat atsegina izatea lortu dezakegu. Ongizate komun bat behar dugu, eta hori da gure helburua; garrantzitsuenak denok ondo egotea da.

Hala ere, gatazkak sortuko dira, oraingo egoeran eta edozein egoeran, gatazkak hor daude eta egongo direlako. Baina gatazka hauek benetan garrantzitsuak diren gauzetarako izan daitezela. Energiak dosifikatu ditzagun!

Mugikorrarekin igarotzen duten denbora murriztu behar dugun galdetu baino lehen, kontuz ibili behar dugu. Mugikorrak, orain inoiz baino gehiago, bere kontaktu soziala, komunikatzeko era eta emozioak adierazteko tresna bihurtu baitira. Ez dezagun ahaztu konfinamendu-denbora honetan, helduok ere pantailetatik onura ateratzen ari garela eta nerabeak gudan islatzen direla.

Denbora guztia dugu, ia 24 ordu, sentimenduei buruz hitz egiteko espazioak aurkitzeko aprobetxatu dezakegu. Agian, lehen aldietan, erantzuna monosilabo bat izango da, eta bigarrenetan eta hirugarrenean agian baita ere. Agian, "asperturik nago" bati heldu eta haritik tira egin diezaioketu. Eta agian egunen batean, sentimendu partekatuen esaldi bat aterako da. Ongi etorri pazientzia eta gogoa. Jaume Funesek dioen bezala: maitatuak sentitzeko beharra dute, baina ez dute inoiz adieraziko behar dutenik.

Bizitza eskola bat gara, eta bizitza aldatu egin da. Une historikoa bizitzen ari gara, eta horrek probatu egiten gaitu, muga pertsonalean eta kolektiboan.

Ez diezaiogun gure semeek eskatu, gu aplikatzeko gai ez garena, eta zurrin eta intransigente bagaude, agian pixka bat askatzea tokatzen zaigu eta zerbaitetaz disfrutatzea. Eta zerbait hori gure seme-alabek gozatzea bada askoz hobe.

Inoiz ez gara nerabeengandik hain hurbil egon, hainbeste denbora eta hainbeste intentsitatez. Egoera honetatik indarberrituta irtetzea da helburua, hurbiltzen gaituena bilatuz, puntu komun aurkituz.



## DUELA 25 URTE...



## Sendotza Irañetan

Astlehena izan zen 1995eko maiatzaren 1a. Dozena bat gazte irintarren eta lau mexikarren sendotza-eguna izan zen. Joan Bataiatzailearen elizan egin zen meza, 12:00etan, eta protagonistak eta haien gurasoak elizaren ezkerreko aldean eseri ziren. Fernando Sebastian Aguilar artzapezpikua elizkizunean izan zen. Akaberan gazteek gotzainari opari bat eman zioten. Elizkizunaren ondoren, bildutako guztiendako auzatea izan zen.

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso  
maketatzailea@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675

## Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra



BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARATZU

## Musika oinarri duten filmak entzierro egunetarako

**Backbeat (1994):** The Beatlesen lehen urratsak kontatzen ditu, bosgarren Beatle ospetsua den Stuart Sutcliffe protagonista hartuta. Musikak une on asko uzten ditu, baina ez dago The Beatlesen abestirik, urte haietan Liverpoolekoek egiten zutena bertsioak baitziren. Taldeak interpretatzen zituen rock klasiko horien guztien artean, soinu bandaren disko on bat geratzen da, kantuen irakurketa oso grungearekin. Beste ikuspuntu bat eta, egia esan, oso egokia.

**Granujas a todo ritmo (1980):** Komedia eta aventura une dibertigarri bat pasatzeko. Blues Brothers-ek misio jainkotiar bat dute eta bete ahal izateko denak balio du. Filmeko talde finkoa osatzen duten musikarien zerrenda garrantzitsua du, eta hainbat aurpegi ezagun batzen zaizkio: Ray Charles, Aretha Franklin edo John Lee Hooker. Soul eta Rhythm and Blues-en erritmoan tarte dibertigarria pasatzeko aukera ematen du eta edozein disko-bildumatan falta

beharko ez lukeen soinu-banda bat uzten du.

**Sid and Nancy (1986):** "No future" filosofia da, modu gordinean. Sid Viciousen bizitzako azken urteak eta Nancy Spunger bikotekidearekin izandako harremana ditu ardatz filmak. Pelikularen alderdi musikala bigarren mailan geratzen da, eta protagonista bikotearen droga-mendekotasuna eta gaztaroen eta bere ibilbidearen gorenean egoteak eragiten dien gainbehera ditu ardatz. Historia hori, zoritxarrez, ehunka taldetan errepikatzen da atzo, gaur eta bihar.

**The Commitments (1991):** Irlandarrak Europako beltzak gara. Dublindarrak Irlandako beltzak gara. Dublin iparraldekoak Dublingo beltzak gara. Nortasun adierazpen honen inguruan, protagonistak Otis Redding, Aretha Franklin edo James Brown bezalako handien estiloari jarraituz Dublinen Soul talde bat sortzea erabakiko du. Filma 1991koa da, baina gaur egun bere historia guztiz gaurkoa da. Ez da ezer aldatu. Soinu banda ikaragarria uzten du.



OBJEKTIBOTIK



## Naturak bere lekua hartu du


Pertsonen mugimendua mugatzearen ondorioz, landareak eta loreak gure herritako kaleak hartuz joan dira egun hauetan. Lurraren

gainean dauden harrien artetik lehenengo belarra hazi zen eta ondoren, kolore eta mota askotako lore ederrek udaberria ekarri digute plazetara.

Horrela, argi ikus dezakegu gizakiaren eragina handia dela inguruan, baina naturak bere lekua segituan hartzen duela porlanaren gainetik.


## EGURALDIA ASTEBURUAN

Osteguna, 30




Egun hodeitsua izanen da gurean. Lainotua egonen da eta noizbehinka euria egin lezake.

Ostirala, 1




Eguraldi nahasia eginen du egun guztian zehar, tantaren bat ere bota dezake.

Larunbata, 2



Eguraldi goibela izanen da larunbatekoa. Temperaturak goxoak izanen dira.

Igandea, 3



Hego haizeak eguzkia eta tenperaturen igoera ekarriko du. Udako giroa izanen da.

## GUTUNA

### COVID-19aren garaia Sakanako irakaskuntzan

INIGO ORELLA ALTZUETA

LAB IRAKASKUNTZA

Sakanako ikasleek 40 egun pasa daramate etxetik ikasten. Krisi guztietan bezala, irakaskuntza ere, pertsonarik zaurgarrienak kaltetuagoak suertatzen dira. Bistan da ikasle guztiek ez dituztela etxean beharrezkoak diren baliabide teknologikoak eta

baldintzak, behar den bezala ikas- prozesuarekin jarriatzeko. Sakanan ere ikasle askok euskararekin duten harreman bakarria eskolan edo ikastolan gertatzen da. Beste batzuk aldiz, eskolako jantokiaz baliatzen dira otordu egokia izateko. Hau guztia kili-kolo gelditu da. Langileen artean ere, haur eskoletako eta zerbitzuetako langileak, lanpostu feminizatuak eta lan baldintza prekarioagoak dituztenak, kaltetuago ateratu dira.

Balioan jarri behar da irakaskuntzako langileek egoera honi aurre egiteko izaten ari diren implikazio izugarria. Baina bistan gelditu da, irakaskuntza ez dela edukien transmisio hutsa, askoz gehiago baizik: gertutasuna, enpatia, konplizitatea, elkar ukitzea eta animatzea, irria, elkar zaintzea... eta horretarako elkarren ondoan egon behar dugu ezinbestez.

Egoerak estresa sortu du hezkuntza komunitatearen

barnean oposizioak, ikasturte amaiera, ebaluazioak edota EvAuren inguruan, baina erabakiak Madrildik inposatzen dizkigute. Agerian gelditu da hezkuntza ere Nafarroaren erabakitze eskumena ez dela existitzen. Estatuak larrialdi-egoera baliatu du birzentralizatzeko, bere curriculum ezartzeko, ikas komunitatea lobby teknologikoen menpe uzteko eta murrizketa sozial eta ekonomiko berrien orubea

prestatzeko. Hezkuntza sistema agortuta dago. Komunitate gisa erronka bat daukagu: gure hezkuntza eredu komunitario parte-hartzaile burujabea eraikitzen jarraitzea, gertutik kudeatuta, herri hezitzailearen filosofia bultzatuz, ikasleak erdigunean jarritz, berdinezalea, feminista... Krisi honek hezkuntza paradigma aldatzeko aukera eskaini diezaguke. Tonuccik dioen bezala "haurrentzat ona den herria, denontzat ona izanen da".



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com  
Ibarrera industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU - Tel./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikarra: 690 641 860



## OROIGARRIA



## Adur Mariñelarena Galartza

XV. urteurrena

(2005eko maiatzaren 1ean hil zen, 21 urte zituela)



Ahazten danien bakarrik hiltzen da  
ta zu fameliyek ez tuzu sekule ahaztuko

Etxarri Aranatz

## ESKELA

Julio  
Reka Iriarte

(Jose Ramón Reka Galdurotz, Iñigo Aritza Ikastolako juntakidearen aita)

Urak dakarrena  
urak daroa,  
zuk emandakoa  
gurekin gelditzen da.

Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle,  
ikasle eta langileak

## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAERA

Altsasun, asteburutan,  
jende heldua zaintzeko  
emakume batek bere  
burua eskaintzen du.  
Interesatuak deitu 651  
472 721 tfnora.

## OHARRAK

## Amarauna zozketa:

Ziordiko gune autogestio-  
natzuko kolektiboak erai-  
kina erosteko aukera du.  
Erosketan laguntzeko  
zozketa antolatuta dute:  
produktu ekologikoen  
saskia eta 10 lagunenda-  
ko asteburu pasa Ama-  
raunan. Zozketarako  
txartelak Bizun aplikazio-  
aren bidez erosi dai-  
tezke 653 468 741 tele-  
fono zenbakian (kontzeptu  
gisa norberaren mugi-  
kor zenbakia jarri txarte-  
laren argazkia bidaltzeko).  
Txartel bakoitzak 2,5 euro  
balio ditu. Txartel eroseak  
zenbakiaren berri wha-  
tsapp bidez jasoko du.  
Bizumik ez dutenek eta  
txartela nahi dutenek 679  
553 734 telefonora hots  
egin dezake. Zozketa  
maiatzaren 10ean Ama-  
raunaren Instagram eta  
Facebook profiletan.

**Elkartasun sareak:** ko-  
ronabirusak eragindako  
osasun-krisialdiari aurre  
egiteko elkartasun sareak  
eratu dira herrietan. Hai-  
kin harremanetan jartze-  
ko moduak dituzu hurren-  
goak: Irurtzun, udale-  
txeko bulego ordu egian  
948 500 051 telefonoa,  
eta hortik kanpo 618 636  
199. Etxarri Aranatz  
hots egin 673 319 557  
edo 671 603 012 telefo-

noetara. Bakaikun 622  
268 161 da markatu  
beharreko telefonoa eta  
botiketarako 948 563 450  
edo Whatsapp bidez 657  
702 178. Altsasun 640  
044 424 telefonora hots  
egin edo altsasukogaz-  
teasanblada@gmail.com  
e-postara idatzi daiteke.  
Lakuntzan 650 866 423  
tfnoan edo lakuntzaelkar-  
tasunsarea@gmail.com  
e-postan. Arakilen 948  
500 101 – 622 297 961  
tfnoetan eta info@arakil.  
net e-postan. Azkenik,  
Arbizun 675 894 913 tf-  
nora deitu edo idatzi al-  
katea@arbizu.eus posta  
elektronikora.

**Urteurren aldizkaria:**  
Aurten Altsasuko Gazteria  
Zerbitzuak 25 urte bete-  
tzen ditu eta Inxosita-pun-  
ta gazte guneak 10 urte.  
Urteurrena ospatzeko  
aldizkaria sortuko dute,  
zerbitzuaren historia me-  
moria izanen dena. Baina,  
aldi berean, Gazteria  
Zerbitzuak etorkizuenan  
landu beharko dituen  
esku-hartze ildoan gai-  
nean gogoeta egin nahi  
da. Aldizkarirako iritzi,  
artikulu, argazki edo  
ideiak eman nahi dutenek  
honako bideak erabili  
beharko dituzte: inxos-  
tipunta@altsasu.net,  
gazteria@altsasu.net  
emailetara idatziz, edo  
608 617 778 - 948 564  
785 telefonoetara deituz.

**Bakaikuko epaitzak:**  
Egur-lotea nahi duenak  
maiatzaren 15a baino  
lehen izena eman behar  
du Udalebeko postontzian  
papera utziz, udala@ba-  
kaikuu.eus helbidera me-  
zua bidaliz edo 948 562

509 – 681 181 308 tele-  
fonoetara deituz. Ordain-  
keta lotea banatzeko or-  
duan egin beharko da.  
Lotearen prezioa 20 euro.  
Bakaikuko Udala.

**Arakildar guztientzako**

**yoga klaseak:** Arakilgo  
Udalak WhatsApp bidez  
12 herrietako profiletan  
yoga bideoak zabaltzea  
erabaki du. Asteleheneta  
eta ostegunetan Izasku-  
nen bideoa 18:30ean eta  
Argimallutakena astear-  
teetan eta ostiraletan  
10:30ean.

**Uharte Arakilgo**

**festetako zapia:** Udalak  
herrian erroldatuta dau-  
den eta joan den urtean  
jaio ziren umeei festetan  
zapia banatuko zaie.  
Erroldatuta ez dauden  
familiek eta festetako  
tattarra hartzeko interesa  
dutenek, garagartzaroen  
5era arte eman deza-  
kete izena info@uharte-  
arakil.com e-posta helbi-  
dera idatziz.

**Gazte Karnetaren 30.**

**urteurrena dela eta**  
**Nafarroako Gobernuak**  
**hura duten gazteei**  
**Nazioarteko Aterpekeide**  
**Txartela oparitzen ari**  
**die.** Azken horrek mun-  
duko 4.000 aterpe baino  
gehiagotarako sarbidea  
ematen du. Horretaz apar-  
te, makina bat deskontu  
eta gazte-mugikortasun  
programetarako sarbidea  
ematen du ere. Nazioar-  
teko Aterpekeide Txartela  
oparitan jaso nahi duenak  
www.juventudnavarra.es/  
eu/hasiera web gunearen  
bidez egin dezake eskae-  
ra

www.iragarkilaburrak.eus

### ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €

prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak  
baino lehen.

## JAIOTZAK

- **Tasmin Mouaddin**, martxoaren 22an Etxarri Aranatz
- **Leila Hajji Chaari**, apirilaren 2an Irurtzun
- **Inar Azanza Loban**, apirilaren 10ean Etxarri Aranatz
- **Enea Zubieta Balda**, apirilaren 11n Etxarri Aranatz

## HERIOTZAK

- **Eugenia Vela Olmos**, apirilaren 1ean Etxarri Aranatz
- **Jose Maria Vesga Valtierra**, apirilaren 13an Etxarri Aranatz
- **Faustina Mazkieran Martinez de Gereñu**, apirilaren 26an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN  
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## ESKELA

## Julio Reka Iriarte

'Xalueina'

—Goian bego—

Iruñean hil zen, 2020ko apirilaren 22an, 91 urte zituelarik

"Gurekin izanen zira betiko"

Haren andreak, Faustina Galduroz; seme-alabek, Yolanda,  
Jose Ramon eta Edurne Oraa; bilobek, Maddi eta Xabier;  
Xaluen anai-arrebek eta gaineko ahaideek

Hireberri (Aezkoa) - Altsasu



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

# IRACHE

## tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



Carmen Razkin Razkin, eskuinean, Mikel semearekin, Altsasuko azokan postua jarri berritan.

## "Karririkak beste istorio bat dauka, tiratzen du"

Herrietako azokak atzera ere zabaldu dira. Herenegun-aurrekoan Etxarri Aranatzan, herenegun Irurtzunen eta Lakuntzan eta atzo Arbizun eta Altsasun. Azokak majo ezagutzen dituen arbizuarrarekin hizketatu gara.

**Alfredo Alvaro Igoa** ARBIZU

### 1 Zer genero saltzen duzue?

Gazta, arrautzak, bakailaoa eta kontserbak, Nafarroako zainzuriak, piperrak eta gauza horiek.

### 2 Zergatik saltzen duzu azoka batean eta ez denda batean?

Niri gehiago gustatzen zait, askoz. Guk goizetik egiten dugu lana.

Hori ere bada. Arratsaldean hurrengo egunerako prestatu behar da, baina, horrela ohituta gaude. Horretara ohituta gaude eta niri denda bat nahiko gogorra egin-go litzaidake.

### 3 Urte asko azoketan?

Nire amona, eta bere aita ere, izan ziren saltzaileak, herriz herri. Sakanan erosi eta Iruñea

inguruan saldu. Eta nire ama ere berdin-berdin. Nire ama Tolosara, Ordiziara... joaten zen. Baserritarrei gazta erosi eta Iruñeko dendetan saldu. Azokak hasi zirenean guk azoketara jo genuen. Eta guk Altsasun 32 urte daramatzagu. Altsasuko jende askok esaten dit nire familiako emakumeetatik saltzen hirugarren belaunaldia ezagutu duela:

nire amina, ama eta orain gu. Orain nire seme zaharrena hasi da.

### 4 Ematen duenaren seinale?

Lan asko da. Beste lan bat. Ez dugu esanen aberastekoa dela, ezta gutxiago ere, bizimodua ateratzeko. Bost egunetan sei azoka.

### 5 Zenbat aste eman dituzue azoketan saldu gabe?

Sei aste. Guretako oso gogorra izan da. Sei aste ezer saldu gabe.

### 6 Gastuak pilatu dira?

Gastuak berdin berdinak. Hemen ez da barkatu ez autonomoen kuota ez ezer. Normaltasunez kobratu dute. Beno, zerbait, laguntza txiki bat eman digute. Bada zerbait. Baina autonomo batendako, gure kasuan, sei aste diru sarrerarik gabe, kontuz, ez da broma.

### 7 Zuen beste azokak zabalik daude?

Zizurren bi aste daramate jada egiten. Zizurkoa izan zen egin zen azken azoka eta zabaldu duten lehenengoa. Guk premiazkoak saltzen ditugunez, iruditu zitzaizen gure aldarrikapena justua zela. Udaletxera hots egin nuen eta esan nion: zergatik dendak zabalik? Nik ez daukat ezer denden kontra. Ni ere joaten naiz erostera. Gu kanpoan egonda, distantziak mantendu daitezke askoz hobe. Dena perfektu egin daiteke. Onartu zuten eta hiru orduz esan zidan baietz: aurrera, ostiralean etorri. Eta handik aurrera, pixkanaka, udaletxeetara hots egin eta denak martxan jarri gara.

### 8 Zein segurtasun neurri daukazue, esaterako, Zizurren?

Postua muntatuta, udaltzainak etortzen dira eta jendea ez hurbiltzeko postutik metro eta erdira gutxi gorabehera zinta horietako bat jartzen dute. Postutik kanpo, bialdeetara, mahaia jartzen dugu, metro eta erdiko tarte horretan, ez hurbiltzeko. Han uzten dugu erosketak. Orain txandaka beharrean denak ilaran eta bate-tik bestera metro eta erdiko tartearekin. Dirua ematen diegunean jendeak eskuak garbitzeko gela eskaintzen diegu. Niretako, osasun aldetik, oso-oso ongi betetzen ditugu gauza guztiak.

### 9 Eta zuek?

Eskuetakoak aspaldidanik erabiltzen ditugu. Maskararekin ibiltzen gara eta gero aurpegi babesgarri batzuekin. Guk ere ez dugu ezer harrapatu nahi, eta inori pasatzea ezta ere, jakina.

### 10 Azoketan jatekoak ez diren gauzak saltzen dutenek, zer esaten dizute?

Esperoan daude. Arropa bat erosten baduzu neurtu egin behar duzu, begiratu, probalekua... Ez dakit. Beraiendako zein momentu txarra. Ze pasada!

### 11 Azokek badute etorkizunik?

Nik beti pentsatzen dut baietz. Beti aldatu gara. Zauden garaira egokitu behar zara. Beste istorio bat dauka karririkak. Eta karririkak tiratu egiten du. Nik positiboki ikusten dut nire semeak segitu behar duelako. Eta, bestela, dena-delakora egokitu beharko da. Guk egin dugun bezala: nire ama dendetara joaten zen eta guk denok azoketan bukatu dugu. Baina azken finean, denok saltzaileak.

Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**EGUN ON SAKANA**  
 egunero 10:00etatik aurrera  
 goizetako konpainiarik hoberena!

107.3 FM  
**beleixe**